

# Goienkaria

2007ko apirilaren 4a > Egubakoitza > VII. urtea > 283. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Europen ez dago politika publikoei uko egiteko joerarik, mantentzekoa baizik"

Luciano Galan  
Aditua kanpo harremanetan >07

## G2a

Gurekoak  
Bartzelonako  
Gracia auzoan > 25

LAGUN ARO  
Osasun laguntzaren sistema berria  
onartu dute botoen %82rekin > 04

BERGARA  
Domingo Irala kaleko lanak berri  
aterako dituzte enkantera > 15

ANTZUOLA  
la zortzi milioi euroko aurrekontu  
bateratua onartu du Udalak > 21

ZERBITZUAK > EROSKI

## Hiper Eroski handitu egin nahi dute

Merkatariendako leku handiagoa nahi dute; 500 aparkaleku gehiago ere bai > 13

INGURUMENA > KONPOSTAJEA

## Hondakin organikoak batzeko edukiontziak

Marroi kolorekoak izango dira eta Aretxabaletan jarriko dituzte. Batutako hondakinak Azpeitira eroango dituzte konposta egiteko. Proiektuan parte hartzenko voluntarioak behar dira. > 18



### Aste Santuko oporrak

Oporrak hartuko ditugu apirilaren 16ra bitartean. Hori dela eta, GOIENKARIaren hurrengo zenbakia apirilaren 20an argitaratuko dugu. Asteleheneko Goienkaria, berriz, apirilaren 16an.

### AURKIBIDEA

- Asteko gaia > 02-03
- Debagoina > 04-05
- Gutunak > 06
- Elkarritzeta > 07
- Herriak > 09-23
- Kirola > 24
- Kultura > 26
- Gazteak > 27
- Sailkatuak > 28
- Eskelak > 29
- Telebista-Irratia > 30
- Non-zer > 31



PEDIATRARENAN, BERGARAN Amaia Palacios Jon txikiarekin eta Xabier Lazcano Unaxekin, Arrate Bengoa pediatraren kontsultant.

XABIER IRTELAI

PEDIATRIA ZERBITZUA > GABEZIARI AURRE EGITEKO FAMILIA MEDIKUAK BIDERATU DITUZTE PEDIATRIARA

## Zortzi mediku, gureko umeen zerbitzura

**ARAZO OROKORRA** EAE osoari eragiten dio pediatra faltak; jarraitu beharreko eredu falta salatzen dute

**GABEZIAREN ARRAZOIAK** Jaiotze tasak gora egiteaz gain, geroago eta mediku gutxiago dago > 02-30

ARAMAIO > AHT

## Herri galdeketa egingo dute

Udal hauteskunde egunean egin gura dute galdeketa > 23



 Merkatuko lehen markak  
 Gremioen koordinazioa  
 Mota askotako estiloak  
**PROIEKTUA - DEKORAZIOA**  
**Ipar**  
project professional  
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKAK  
Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegaraieta Industrialdea BERGARA  
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44  
www.iparproject.com

S-MAX your life.



Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an Europen

**24.000 € -tik aurrera.**

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE





PEDIATRARENAGANA Feli, Estibalitz eta Ibone haurtxoa asteluhenean, Bergarako osasun etxearen, medikuaren koltsultara sartzeko zain.

XABIER URTZELAI

OSASUNA &gt; PEDIATRA GUTXI DAUDELA-ETA, FAMILIAKO MEDIKUAK DABILTZA LAN HORI EGITEN

# "Familiako medikuek 50 orduko ikastaroa egitea ez da konponbidea"

**PEDIATRA GUTXI** Osakidetzak erabaki du EAEn dagoen pediatren gabeziaren arazoa konpontzeko familiako medikuak zeregin horretara bideratzea

**IKASTAROA** Jardun hori hobeto egin dezaten, etxeko medikuek 50 orduko ikastaroa egingo dutela argitu du Osasun sailburu Gabriel Inclanek

**IRTENBIDE TXARRA** Pediatren elkarrean iritziz, hori ez da arazoa konpontzeko bidea, "partxea baizik"; arazoa ez da hemengoa bakarrik

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Pediatria buruhauste bilakatu da Osakidetzarenak, zerbitzu horrek gabezia du-eta. Batetik, azken urteotan jaiotze tasek gora egin dute nabarmen. Bergarako pediatra Arrate Bengoak esan digu, baina, badagoela beste motibo bat: geroago eta mediku gutxiago dagoela, alegia. Eta, arazoa orain pediatraren badago ere, laster medikuntzako beste alor batzuetan igarriko dela. Arazoa konpondu guran, Osakidetzak erabaki du familiako medikuak pediatra lanetara bideratzea. Hori horrela, lana hobeto egiteko familiako medikuek 50 orduko ikastaroa egingo dute: "Baina

hori ez da inongo konponbidea, adabakia baizik. Osakidetzak errrotik heldu behar dio arazoori, hausnarketa egin eta egoera zein den aztertu. Eta, dauden baliabideekin egitasmo estrategiko bat egin. Gertatzen dena da politikak asko agintzen duela".

Pediatria alorrean dagoen gabeziak haserrea piztu du profesionalen artean, eta baita herri-tarrengan ere. Bistan da 50 orduko ikastaroarekin gaitza dela espezializazioa egin duen mediku batek besteko zerbitzua eskaintza. Dena dela, egoera hori ez da berria, gaur egun hainbat lekutan dabilzalako familia-koko medikuak pediatra lana egi-

**"Osakidetzak orain dela 20 urte egitasmo bati jarraika modelo bat eratu zuen; orain, baina, egoera berriei aurre egiteko modelo baten faltan gaude"**

ten. Gainera, Estatuan hedatuta dagoen arazoa da, baita Europa-ko beste lurralte batzuetan ere.

**DATU ESANGURATSUAK**  
Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatren Elkartearren esanetan, EAEn dauden 255 pediatra postuetatik 24 postu familiako medikuak betetzen dituzte (%8,6). Arabako lurralteak erakusten ditu datu esanguratsuenak, 33 pediatra postuetatik 11 postu espezializazio hori egin ez duten medikuak betetzen dute-eta.

Gipuzkoan, berriz, datu ofizialek erakusten dute etxeko sei mediku dabiltzala pediatra jar-dunean, baina datu horiek ez

dute beti errealitatea islatzen. Hori azaldu digu Bergarako pediatra Arrate Bengoak: "Plaza finko gehienak pediatrek betetzen dituzte, baina pediatra horiek, adibidez, euskara ikasteko liberratzen dituztenean edo baja har-tzen dutenean ordezkoak familia-koko medikuak izaten dira; ez dago ordezko pediatrarik".

**DEBAGOIENEKO EGOERA**  
Ibarri dagokionez, gurean zortzi lagun dabilzta zerbitzu hori eskaintzen. Eskoriatzakoa eta Aretxabaletakoa pediatrak dira. Arrasaten, berriz, hiru plaza dau-de, eta arratsaldeetan egoten dena familia medikua da.

Oñatiko pediatra liberatuta dago, eta ordezkoa familiako mediku da. Bengoak esan digu beharra dagoenean indartu egiten dute la Oñatin zerbitzua, eta familiako beste mediku batek egiten du lan hori.

Bergaran, berriz, bi pediatra daude. Bengoak plaza finkoa du, eta haren lankidea liberatuta dago. Hala, ordezko lana egiten dabilena familiako mediku da. Egoera horrela egonda, protesta gehien non jaso dituzten galdeku diogu Bengoari: "Esango nuke azkenaldian Oñati aldean egon direla protesta gehien". Izan ere, kasu askotan badago haserre ego-teko motiboa, pediatrek komendi dena baino haur kopuru handia goa hartzen dute-eta. Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez dago arazorik. Arrasaten, hiru mediku dute Arrasateko eta Aramaioko haurren ardura. Oñatin, hango medikuak beste baten laguntza behar izan du, eta Antzuolara -200 haur- eta Elgetara -100 haur- Bergarako pediatrak joaten dira astean behin.

#### MILA HAURRETIK GORA

Bengoak onartu digu medikuek ez dutela paziente kopururik eza-rrita, "askotan gaindituko litza-tekeelako kopuru hori". Osasun sailburu Gabriel Inclanen esan- tan, mediku-plaza bakoitzak batez beste 842 paziente ditu.

Pediatren elkarteeek gomenda-tzen dute kopuru hori ez dadila 1.000 baino gehiagokoa izan. EAEn, baina, hori ez da errespetatzen, egindako ikerketen ara-bera mediku bakoitzak batez bes-te 1.083 paziente dituelako. Ego- era askotan, gainera, zenbateko horrek nabarmen egiten du gora: "Datu horiek herrika alderatu behar dira. Eskoriatzan, adibidez, 600-700 paziente izango dituzte. Aretxabaletan 1.000 inguru izango dira, eta Oñatin 1.500".

#### ZEIN DA KONPONBIDEA?

"Jarraitu beharreko modelo baten falta", horrela definitu du Bengoak Osakidetzak duen arazo. Jakinda arazo hori beste leku batzuetan ere badutela: "Katalunian, adibidez, ume guztiak familiako medikuetatik pasa-tzen dira lehenengo, eta hark bideratzen ditu espezialistaren-gana gero. Hori da gura dugun modeloa? Hori da erabaki behar-ko duguna, baina, gutxienez, modelo bat daukate. Beste leku batzuetan, berriz, beste lurralde batzuetako pediatrak hartzan hasi dira: "Ingalaterran, adibidez, Poloniako pediatrak kontrata-tzen dituzte. Azken batean, Osakidetzak orain dela 20 urte egi-tasmo bati jarraika modelo bat eraiki zuen, baina orain egoera berriei aurre egiteko modelo baten faltan gaude".

## Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatren Elkarteak egindako proposamenak

Arazoaren berri emateko, Euskal Herriko pediatren elkartea txostena egin du -www.avpap.org-. Hala, elkartea ezinbesteko ikusten du egitasmo estrategiko bat eratzea, estatu eta autonomia mailakoa, ospitalerako eta lanerako pediatren premiak aztertuko dituena. Horrekin batera, lan baldintzak hobetu egin beharko liratekeela uste dute, EAEn pediatraren jardutea erakargarria izan dadin. Izan ere, hemen ikasten duten mediku askok kanpora egiten dute, horrenbesteko esfortzua egin eta gero, kanpoan lan baldintza hobeak eskaintzen dizkietelako.

Bistan da dagoen gabeziari aurre egiteko pediatrak behar direla, eta elkartea horren esanetan beste herrialdeetako pediatrei oztopoak jartzeak ez du laguntzen -euskaraz ez dakitenei, batez ere-. Horrekin batera, beharrezko ikusten dute beste herrialdeetako pediatrak importa-tzea, egitasmo estrategikoaren bidez sortuko den belaunaldi ordezkapen egokia ziurtatu arte.

#### Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonistikoa-ekogarfia (4D)
- Endoskopía ginekologikoa
- Lagunza bidezko ugalketa
- Obstetricia
- Nerabezaro ginekologia

#### Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albiu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarrain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

Arrate Bengoa > Pediatra

## "Arazoa pediatrian dago orain, baina medikuntzako beste alorretara hedatuko da"

X.U. > BERGARA

Arrate Bengoak hamazazpi urte egin ditu Bergaran lanean, eta urte horiek eman dioten esperien-ziarekin egiten du daukaten arazoaren gainean berba. Gaur egun pediatraren dagoen arazoa beste alor batzuetara hedatuko dela adierazi digu Bengoak, geroago eta mediku gutxiago dagoela ikusten duelako.

Pediatraren dagoen arazoa konpon daiteke Osakidetzak proposatu duen 50 orduko ikastaro horrekin?

Inondik inora, ikastaro hori ada-bakia baino ez da. Osakidetzak arazoaren muinera joan behar du, bene-tan ditugun baliabideak zeintzuk diren ikusi, eta hausnarketa egin. Egungo beharretara egokituko den modelo bat behar dugu, eta ez ada-bakiak.

Ikastaro hori egitea nahikoa da pediatra baten lana egiteko?

Ez, bestela alferri egingo genu-ke-eta espezializazioa. 50 orduko ikastaro horrekin oinarritzko gauzak ikasiko dituzte. Haur bat kalentura-rekin dagoenean zelan jokatu... Bai-na beste arazo batzuen aurrean mediku horrek ez dauka prestakun-tza nahikorik. Azken baten, larrial-dietako hainbat kasuren aurrean ondo molda daitezke, baina pediatrak dira? Bada, ez. Pediatriak hau-rra jaiotzen denetik 14 urte dituen arte zelan garatu den jorratzen du, baina ez gaixo dagoenean bakarrik, baita osasuntsu dagoenean ere.

Horrenbestez, ikastaro hori momen-tu konkretu baterako irtenbidea da.

Hori da. Azken baten, ikastaro hori eginduen mediku batek momen-tu batean ordezko lana egin deza-ke, eta oso ondo. Baina arazoa da ikastaroa egiten dutenak ez direla noizbehinkako ordezkapen tarako egongo, pediatra moduan jardun- do dutela baizik.



X.U.

Pediatraren arazoaren funtsean, bai-na, oinarrizko beste arazo bat dago.

Halaxe da, mediku falta dagoe-la da benetan daukagun arazo larria. Guk aspaldidanik igarri dugu hori, bost urte daramatzagu esaten fakultateetan geroago eta ikasle gutxi-a-goda dela medikuntza egiten. Azken

batean, ikasketa horiek egin gura dituenak badaki 10 urte igaro behar-ko dituela ikasten -sei urte medi-kuntza egiten, eta lau urte espezia-lizatzen-, eta gogoa izan behar da horretarako. Horrez gain, orain dela urte batzuetatik hona unibertsita-tean oso nota altuak eskatzen dituz-te ikasketa horiek egin ahal izate-ko, eta horrek ez du laguntzen. Hala, orain gauden medikuak ikusten ari gara gure atzetik ez datorrela erre-leburik.

Eta medikuntzako gainontzeko alo-rettan ere igartzen da hori?

Bai, bai. Sasoi baten anestesia-ten falta egon zen, baita oftalmolo-goen eta beste hainbat espeziali-sten falta ere. Medikuntza orokorre-an ere hasi da hori igartzen, eta orain, familiako medikuak ere pediatra lanetan jartzen baditzute, beste horrenbeste gertatuko da.

**CG**  
**CONSULTORIO**  
**GINECOLOGICO**



ARRASATE

Zerkaosteta 17

943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 21

Irun: 943 61 78 88



HAUTESKUNDEAK &gt; ABIARAZI DUTE HAUTESKUNDE PROZESA

# Hauteskundeetarako deialdi ofiziala egin dute oraingo astean

Apirilaren 9tik 16ra jarriko dituzte ikusgai udal hauteskundeetarako deialdiak. Horrela, dagoeneko martxan jarri dute hauteskunde prozesuaren *makineria*.

Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan zinegotzi gehiago izango dituzte

**AINTZANE IRIZAR > BERGARA**  
Martitzenean, hilak 3, egin ziren ofizial Batzar Nagusietarako eta udal hauteskundeetarako deialdiak. Horrela, dagoeneko martxan jarri dute hauteskunde prozesuaren *makineria*.

Apirilaren 9tik 16ra ikusgai egongo dira udal hauteskundeetarako deialdiak. Horrela, dagoeneko martxan jarri dute hauteskunde prozesuaren *makineria*.

Herritar gehienoi zuzenean eragiten digun beste kontu bat da hauteskunde egunean mahaian egon behar izatea. Udal hauteskundeetarako deialdiak. Horrela, dagoeneko martxan jarri dute hauteskunde prozesuaren *makineria*.



MAHAIAK 2003ko hauteskunde egunean, Bergaran, mahaia eratzeko orduan.

GOIENKARIA

**BERDINTASUN LEGEA**

Alderdiak eta hautesle zerrendek apirilaren 18tik 23ra arte dute aurkezteko. Auten lehenengo aldi, Berdintasun Legea kontuan hartu beharko dute zerrendak osatzeko orduan. Martxoan onartu zuen lege hori Spainiako Kongresuak. Legearen arabera, helburua da oreaki eustea; horrela, hautagaien %40k gutxiez izan behar dute emakumez-

koak zein gizonezkoak. Hori bete beharko da zerrendetako bosteko tramutan. Oraingoz, 5.000 biztanletik gorako herrietan bakanrik bete beharko da legea, baina, 2011tik aurrera, 3.000 biztanletik gorakoetan.

**ZINEGOTZI GEHIAGO GUREAN**

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzaganako udalek zinegotzi gehiago izango dituzte aurrerantzean, biztanle kopuruak gora egin due-lako; Antzuolan, bederatzi zinegotzi izatetik hamaika izatera pasatuko dira; Elgetan, zapzpitik bederatzira eta Leintz Gatzagan, bost dituzte eta zapzpi izango dituzte maiatzaren 27tik aurrera.

**BATZAR NAGUSIETARAKO ZERRENDABURUA**

Iñaki Galdos eta Rebeka Ubera.



Alderdi politikoak badabiltza poliki-poliki hautagaien berri ematen. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendaburuen artean, baditu bi debagoiendak: Iñaki Galdos oñatiarra diputatu nagusi izateko EA alderdiaren hautagaia izango da eta Rebeka Ubera elgetarra, bestalde, Aralar-Ezker Batua koalizioaren zerrendaburua izango da Deba-Urola barrutian. EAJri dagokionez, zerrendaburuen artean ez dago debagoiendarrak, baina bai zerrendan: Deba-Urola barrutiko zerrendan, Ainhoa Galdos oñatiarra zerrendako laugarrena da; bederatzi garrena, Aintzane Oiarbide bergararra eta hamaiagarrena Ixidor Solupe arrasatearra.

## GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea  
**Ginekologoa**

Atzoko kalea 6, behea • ONATI  
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak: ostiralean  
9.00etatik 13.00etara  
Eta 15.00etatik 18.30era

**Aseguruak:**  
Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

## Zinegotziak herriz herri

HERRIA	ZINEGOTZI KOPURUA
Arrasate	21
Bergara	17
Oñati	17
Aretxabaleta	13
Eskoriatza	11
Antzuola	11
Elgeta	9
Aramaio	9
Leintz Gatzaga	7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (GAO)

**AHT > BEDERATZI KILOMETRO LUZE ETA 138,8 MILIOI EUROKO AURREKONTUA DU**

## Eskoriatza-Aramaio-Arrasate tarte egiteko lanak esleitu ditu Sustapen Ministerioak

Bi tartetan banatuta dago: Eskoriatza eta Aramaio lotzen dituena batetik eta Aramaio eta Arrasate artekoan bestetik

**MIRIAN BITERI > BERGARA**  
Debagoinari eragiten dion Abiadura Handiko Trenaren beste zati baten lanak esleitu ditu aste honetan Spainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak, Eskoriatza-Aramaio-Arrasate tarteari dagozkionak dira, hain zuzen. 138,8 milioi euroko aurrekontua dute obrek.

Esleitutako zatiak bi tarte ditu: Eskoriatza eta Aramaio arteko eta Aramaio eta Arrasate lotzen dituena. Lehenengoa Acciona eta Excavaciones Viu-

da de Sainz enpresek eraikiko dute. 80,9 milioi euro izango dituzte horretarako. Bada, 5,58 kilometro luze den tarte hori 29 hilabetean egin beharko dute.

**2.224 METROKO TUNELA**

Zubiezin gain, tunelak ere eraiki beharko dira Eskoriatza eta Aramaio arteko zatian, hala nola Uruburu 1, Uruburu 2, Mazmela eta Induspokoak. Azken hori 2.224 metro luze izango da.

Bigarren zatiaren lanen arduera, bestalde, Sacyr, Amenabar eta

Proyectos enpresei dagokie, 57,8 milioi eurogatik. Ibilbidea 3,39 kilometro luze izango da.

Eraiki beharreko azpiegitura guztien artean, 1.401 eta 312 metro izango dituzten zubiak aipa daitezke. Baita Atxetarri tunela ere, 568 metro izango dituena.

Debagoinetik igaroko den beste zati bat, berriz, esleitua dago aurretik. Urtarrilean, Legutiano eta Eskoriatza arteko esleitu zuen Spainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak.

## Esleitutako tarteak

**ESKORIATZA-ARAMAO-ARRASATE**

- > Bi tarte ditu: Eskoriatza-Aramaio (5,58 kilometro) eta Aramaio-Arrasate (3,39 kilometro).
- > Egoera: esleitura.
- > Aurrekontua: 138,8 milioi euro.
- > Empresak: Acciona, Viuda de Sainz, Sacyr, Amenabar eta Proyectos.

**LEGUTIANO-ESKORIATZA**

- > Luzea: 7,4 kilometro.
- > Egoera: esleitura.
- > Aurrekontua: 130,7 milioi euro.
- > Lanak amaitzeko epea: 4 urte.
- > Empresak: Comsa y Cycasa eta Canteras y Construcciones Ferrovial Agroman eta Fonorte.

## LAGUN-ARO

# Osasun laguntza berria onartu dute

**AINTZANE IRIZAR > ARRASATE**  
Egubakoitzean, martxoak 30, egin zuen batzar orokorra Lagun-Arok eta hantxe era baki zuten Errektore Kontseiluak proposatutako osasun laguntzaren sistema berria onartzea. 1.500 ordezkarik zuten bota emateko eskubidea; %82,2ren babesarekin egin zuen aurrera proposamenak. %16,7k, bestalde, ezezko bota eman zuten.

**FINANTZAZIOAN ALDAKETAK**  
Proposamena bozkatu aurretik, hainbat emendakin eztabaidatu zituzten eta horietako batek aurrera egin zuen. Horren arabera, hainbat alda-keta egin zaizkio Errektore Kontseiluaren proposamena aurkeztutako finantzazio moduari. Proposamena hartan jasotzen zuten bazkideko eta hileko 48 bat euroko gastuak sortuko zaizkiola Lagun-Arori eta bazkideak hilero 20 euroko kuota ordaindu beharko zuela. Emendakina onartuta, aldatu egin dute hori; kooperatibak hartuko du bere gain kuoten finantzazio osoa. Trucean, bazkideen soldatak egokituko dituzte; hau da, soldata igoerak txikia-goa izango dira.

Hain zuzen ere, 2008ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean egubakoitzean onartutako sistema.

ABERRI EGUNA > HIRU DEIALDI EGIN DITUZTE

# Aberri Eguna hainbat tokitan ospatuko dute hilaren 8an, domeka

Hainbat herritarren ekimenez, eta zenbait eragilek babestuta, Aberri Egun bateratua ospatuko dute Irunen

EAJ alderdiak Bilborako deialdia egin die herritarrei eta EAk, berriz, Gernikaroko dei egin du

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Hiru deialdi desberdin egin dituzte Euskal Herrian Aberri Egunez. Urtero bezala, EAk Gernikan ospatuko du eguna; EAJk, berriz, Bilborako deialdia egin du; eta herritar talde batek Irundik Hendaiara joango den martxa bat antolatu du. Izan ere, urteak dira Aberri Egun bateraturik antolatzen ez dena, eta aurretan aukera izango da.

GERNIKAKO ABERRI EGUNA

11:30ean, haurrentzako gaztelu puzgarriak eta tailerrak izango dira Merkatu plazan.

12:30ean, Begoña Erraztik eta Unai Ziarretak mitina egingo dute plaza horretan bertan.

14:30ean, bazkaria izango da Jai Alai pilotaleku eta 17:00etan, Joselu Anaiak taldeak kontzertua emango du.

Hara joateko autobusak irtengo dira Arrasatetik, Garibaiko geltokitik, goizeko hamaketan. Autobusa 10 euro da, eta bazkariarekin 30.

Norbaitek erreserba egin nahi badu, 943 71 27 88 telefono zenbakira dei egin dezake.

BILBOKO ABERRI EGUNA

Euskadi egin behar dugu lelopean Bilbon egingo du EAJk Aberri Eguna. Lehenik, 12:00etan, ekitaldi politikoa izango da Plaza Berrian, eta bertan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Josu Jon Imazek, Euzkadi Buru Batzarrreko presidenteak, hartuko dute parte. Ekitaldia amaitu ondoren, herri bazkaria izango da Arriaga plazan, 14:00etan.

IRUNGOKO ABERRI EGUNA

Aberri Eguna modu bateratuan ospatzeko dei egin dutenen artean daude, besteak beste, Koldo Amezketa, Andoni Egaña, Maike Goienetxe eta Laura Mintegi. Deialdi horri hainbat talde eta alderdi politiko atxiki zaizkio: Zazpiak Bat taldea, Bai Euskal Herriari herri ekimena, Matalas iritzi taldea, Zutik, AB, Batasuna, Aralar eta LAB.

Martxa Irungo Ficoban hasi da, 11:30ean, eta bukatu, berriz, Hendaiako Herriko Etxean egingo da. Ekitaldi politikoa egingo da han eta ondoren, herri bazkaria izango da Urruñako kiroldagian.

Arratsaldean, eztabaida egingo dute, 17:30ean, Iparraldeko mugimendu abertzalearen inguruaren. Gero, Jean-Pierre Massias unibertsitarioak hitzaldia egingo du; eta azkenik, alderdi bakotzak bere hausnarketa azalduko du. Egunaren antolataileez gain, EAJ, EAJk eta Joxe Iriarte *Bikila* Zutik-eko kideak hartuko dute parte.

ELA-REN IRAKURKETA

ELA sindikatuak irakurketa egin du Aberri Egunaren inguruan. Aurkeztutako dokumentuan, "abertzaleen arteko ekintza bata-suna" aldarrikatzen du.

HIRU DEIALDI

> EA-REN DEIALDIA

Mitina 12:30ean izango da, Gernikako Merkatu plazan.

> EAJ-REN DEIALDIA

Ekitaldi politikoa 12:00etan izango da, Bilboko Plaza Berrian.

> DEIALDI BATERATUA

Martxa egingo dute Irundik Hendaiara, 11:30ean.


HEZKUNTZA

## Joxean Alustiza, HUHEZIKO lehendakari

Izendapen horretaz gain, Errektore Kontseilu berria ere aukeratu dute

MIRIAN BITERI > BERGARA  
HUHEZIK Joxean Alustiza izendatu dulehendakari, Txema Gisasonaren ordez. Izendatzearekin batera, Errektore Kontseilua berri du.

Alustiza Ezkio-Itsason jaio zen 1965ean. Ingeniaritz teknikoa ikasi zuen eta 1999a ezkerro Fagorreko Kontseilu Nagusiko eta MCCko Batzorde Iraunkorreko kide da.



Joxean Alustiza.

GOIENKARIA



# IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
BAINUA: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR



Bologna prozesuaren inguruan desinformazio asko dagoela dio Luciano Galan Madrileko Uni-

bertsitate Autonomoko Kanpo eta Elkarte Harremanetarako zuzendariak. Europa osoan era-

gingo duen prozesuaren helbu- ruak azaldu zituen eguatzene- an Oñatiko ETEO unibertsitate-

an. Horrekin batera, gizartea agertzen dituen kezken gainean ere bere iritzia eman du.

Luciano Galan> Madrileko Unibertsitate Autonomoko Kanpo eta Elkarte Harremanetarako zuzendaria

# "Europan ez da politika publikoei uko egiteko joerarik, mantentzekoa baizik"

AMAIA ZALDUA > OÑATI

Mondragon Unibertsitateak jardunaldia antolatu zuen martxoaren 28an, Europako esparruaren erronkak eta unibertsitate horretako Mendeberri Proiektuarekin dituen loturak aztertzeko. Europako esparrura moldatzeko beharra azaldu zuen Madrileko Unibertsitate Autonomoko Kanpo eta Elkarte Harremanetarako zuzendari Luciano Galanek.

## Zer da Bolognako prozesua?

Bolognako prozesua agenda bat da. 45 herrialdekin batera tu batean eta euren borondatetan (ez da inor behartzen) ezarritako helburuen finkapena da. Finkapen hori saiatzen da goi-mailako hezkuntza hobetzen 45 herrialde horien testuinguruan.

Horrez gain, Bolognako prozesuaren helburua elementu komun batzuk ezartzear da. Beraz, Europako Batasunaren mugak gainditzen dituen prozesua da, izan ere, 45 herrialde biltzen ditu, ez soilik 27. Goi-mailako hezkuntza hobetzeko prozesua da, eta lan egiteko prozedurak finkatzen doa.

## Zer aldaketa ekarriko ditu?

Aldaketak izango dira ikasleentzat, irakasleentzat, unibertsitateentzat eta gizartearrentzat. Aldaketa nagusietako bat izango da, orokorrean sistema hau erakargarriagoa izango dela nazioarte mailan. Kalitatea hobetzean, talentudun nazioarteko ikasleak bilduko dira, eta erreklutatze horrek automatikoki lortzen du sistema hobetzea. Munduari begiratzen dion prozesua da.

## Zer ondorio ekarriko ditu?

Baliteke ondorio txarrak iza-tea. Denboran sostengatuta egoego den prozesu luzea izango da. Prozesu horiek guztiak informazio zailtasunak izaten dituzte; informazioa ez da behar bezala iristen, eta gizartea aurrera doan prozesu horrekiko hautemantza ezkorra izan daiteke...

Beste eragoppen bat zera da: aniztasuna onartzen duen prozesua dela, beraz, ez du behin betiko egoera idealak ekarriko. Horrek noraeza sor dezake: nora goaz? Era bateratu eta sostengatuan eraikitzen ari den eta oraindik zehaztu gabe dagoen leku batera goaz. Batzuek pentsa dezaketenik, nik ez, helburua ez dagoela nahikoa garbi; badago, baina ez erabat ezarrita, prozesua erabat ezarrita ez dagoen bezala. Proze-



Luciano Galan Madrileko Unibertsitate Autonomoko Kanpo eta Elkarte Harremanetarako zuzendaria da.

A.Z.

su horretan, aurrera doan heinean ikasiz goaz.

## Egungo hezkuntza sistema atzean geratu dela uste duzu?

Egungo hezkuntza definitzea zaila da, ez dago egungo sistemarik. Orain, 45 herrialde Bolognako prozesuan barneratuta daude: batzuk hasieran daude oraindik, eta beste batzuk bukaeran, berrikuntza berritzen. Beraz, ez dago egoera homogeneorik, bai-zik eta heterogeneoa. Hori ona da eta procedura azkar zein mantsaoak daude. Azken horiek, azkar doazenen balioespena lortzen dute. *De facto* egoera bat dago, non ezin den esan zer dagoen ondo eta zer gaizki.

Gainera, mundu mailako egoera dago, prozesuko 45 herrialde horiek ezaugarri internazional bat dute, hortaz, ezin da esan prozesu globala denik. Beste erreferente batzuk badau de munduan euren egoera ezagutarazten digutenak. Sistema horien batuketa izango litzate-

## BOLOGNAKO PROZESA

### "Europako 45 herrialdetako goi-mailako hezkuntza hobetzeko prozesua da"

#### ALDAKETAK

### "Nora goaz? Era bateratuan eraikitzen ari den eta zehazteke dagoen leku batera"

#### GUTXITUTAKO HIZKUNTZAK

### "Gutxitutako hizkuntza batekin mugitzen den ikasleak, ekarprena egiten dio hizkuntzari eta atera egiten du bere mugetatik"

ke gaur egungo egoeraren argazkia; eta argazki hori, norabide zehatz batean garatzen eta aldatzen ari da. Ez dago hobeago ala txarragorik, baizik eta eraldaketa bat dago.

## Bologna prozesuaren aurka-ko iritziek diote unibertsita- teak pribatizatu egingo direla; enpresek zuzenduko dituztela...

Desinformazio asko dago. Lisboako deklarazioaren helburuetako bat da zergen bidez bideratutako politika sozialak epe ertainera zein luzera mantentzea. Azken finean, eskaintza publikoak ahalbidetzeko kompromisoa hartzea da. Heziketako hiritarrak nahi dira, formakuntza bat jaso dutenak eta enplegatuta daudenak. Ez badute lanik, ez da politika publikorik izango. Beraz, iritzi horiek interpretatzeko erakdira, nik lana sortuko duen sistema bat ikusten dut. Ikasle bakoitzak gai izan behar du langile ona izateko, horrela sistema-

ko elementu aktibo bilakatuko da. Baliteke langileei buruzko diskurtso horrek, jendeari pensaraztea enpresei begira dauden unibertsitateak soilik nahi ditugula, baina ez da hala; unibertsitate publikoak ez dira enpresak eta parte hartuko dute prozesuan.

Pribatizazioari dagokionez, Europan ez dago politika publikoei uko egiteko joerarik, baizik eta mantentzekoa.

## Zer pasako da hizkuntza minoritarioekin?

Nazioarteratzeak dimentsio berri bat sortuko du, eta bertan gutxitutako hizkuntzak izango dira. Zer mailatan? Ez dakit, baina izango dira, ikasleek euren hizkuntza erabili eta eragin ahal izango dutelako dauden lekuak daudel.

Gutxitutako hizkuntza batekin mugitzen den ikasleak, ekarprena egiten dio hizkuntzari eta atera egiten du dagoen mugetatik.

# Jatetxe Gida



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzetenetan eta eguzzenetan afaririk ez.



## Baster-Alde

Galartzia auzoa / ARETXABAleta

943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartzeak eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

### Astelehenetan itxita



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE  
943 79 85 33

### Txinatar jatetxea

### Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramatzen dizugu

### Eguneko menua eta karta



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

### Astelehenetan itxita



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA

943 71 49 52

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

### Astelehenetan itxita



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15

[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitarkeoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

### Martitzetenetan itxita



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABAleta  
943 79 20 67 / 943 79 49 41

### Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



## Torrekuia

Ibargarai 37 / BERGARA

943 76 50 99

### Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

### Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuleta



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

### Egunero zabalik

# Herriak

Arrasate > 12-13 Bergara > 14-16 Aretxabaleta > 17-19 Eskoriatza > 20  
Antzuola > 21 Elgeta > 22 Aramaio > 23



## > ARRASATE

Arrasateko hizkuntza politika neurtu dute eta ez du gainditu > 12



## > BERGARA

72 etxebizitza berri eraikiko dituzte San Lorentzo kalean > 14



## > OÑATI

Ludotekaren proiektua idazteko baldintzak onartu dituzte > 16



## > ARAMAIO

Auzo alkateak lanerako gertu daude galdeketa gauza dadin > 23

ARRASATE > HERRITAREN KEXUAK

# Kale, espaloi eta bestelakoenean egoerek eragiten dute herritarren kexu gehien

## BAZ-EN IPINI

Udalarekin lotutako kexuak Biztanleen Arreta Zerbitzuan ipini behar dira

## LAU MODU

Lau bide daude kexua ipintzeko: ahoz, telefonoz, posta elektronikoz edo idatziz

## UBANE MADERA > ARRASATE

Udalak 2006ko uztailaren estreinatu zuen Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ), administrazioarekin lotutako izapide edo tramiteak egiten dituzte. Tartean, herritarren kexuak hartzeko eginbehera ere BAZeko langileena da. Betiere kexu horiek zerikusia badute Udalarekin. Zerbitzu horren gaineko azalpenak eman ditu BAZeko arduradun Edurne Muxikak Arrasate Irratian.

## IA 400 KEXU

Hala, besteak beste, otsailaren amaieran BAZen batuta zuten kexua kopuruaren zenbatekoa jakinarazi du: 393. Eta baita ere horietatik gehienak Zerbitzu Sailarenak direla (300). Zerrendan hurrengo dator, nahiz eta urru-ti, Udaltzaingoa, 41 kexurekin. Eta, hurrenez hurren, honako sailak datozen gero: Hirigintza, Kultura, Ingurumena eta Gizarte Zerbitzuak.

Zergatieri dagokienez, berriz, zerbitzuen egoerarekin lotutakoak dira kexua aurkeztekoko arazoak gehienak: espaloia eta errepideak, semaforoak, argiteria, garraioa, zaborra eta abar.

## KEXUA IPINTZEKO BIDEA

Lau modu eskaintzen dute kexua aurkeztekoko: Portaloiiko bulegoan bertan ahoz egitea; telefonoz deitura (010 Arrasate barrutik) edo 943 25 20 00 Arrasate kanpotik); posta elektroniko bidea ([baz@arrasate-mondragon.net](mailto:baz@arrasate-mondragon.net)) edo idatziz. Azken modu horre-



AZPIEGITUREN EGOERA Herritarrek kexu dira, esaterako, kaleko espaloien egoerarengatik.

IKER BARANDIARAN

tan bi bide daude: etxearen prestatako idatzia aurkeztu edo BAZen bertan eskatutako inprimakia bete.

## PROGRAMA BEREZIA

Behin kexua hori aurkeztu ostean, BAZeko langileek programa informatiko berezi batean sartzen dute. Programa horrek kexua udaletxera bidaltzen du, dagokion sailera, haren ardurdunari. Beharrezko bidaia, argazkia ateratzen dute. Eta horren guztiaren ostean, sailaren arduradunak erantzuna idazten du (argazkia lagun duela) eta BAZekoek herritarrari helarazten diote erantzuna, herritarrak eskatutako formatuan: telefonoz, posta elektronikoz edo idatziz.

Izan ere, kexua ipini ostean, herritarrari galduen diote ea erantzunik gura duen. Eta, gura izanez gero, esandako hiru formatuak ematen dizkiote aukeran.

Batzuetan herritarrak ez du erantzunik gura. Hala bada, ez zaio erantzunik bidaltzen, baina hark aurkeztutako arazoari konponbidea ipintzen ahalegintzen dira.

Aldiz, gerta liteke arazoak konponbidea izan arren, gaizki konpontzea edo ez konpontzea. Hori horrela bada, oso importantea da abisatzea, mekanismo guzti atzera ere martxan jartzeko.

## BESTE BIDE BATZUK

Lehen esandako moduan, BAZen aurkeztu behar dira Udalarekin zerikusia duten kexuak. Baino

askok jotzen du hara bestelako-en gaineko kexuak aurkezteria; esaterako, atarteko bizilagunen artean dituzten arazoengatik. Eta BAZ ez da horretarako lekuak.

Halako kasuetarako, Jaurlatzak zerbitzu berria abiarazi du: Bizilagun. Informazio pertsonalizatua eta laguntza ematen dute atarteko desadostasunak konpontzeko. Eta baita ere etxebizitza bat errrentan ipini eta etxebizitza hori hartzen duten pertsonen artean sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko:

[www.bizilagun.info](http://www.bizilagun.info): 943 46 41 33. Arazoek kontsumitzaleon eskubideekin lotura badute, berriz, Kontsumitzaleen Bulegoa jo beharra dago, Donostiako Easo kalera (943 02 25 47).

## DATUA

**393**  
KEXU

Sailez sail begiratuta, hauek dira kexuak: Zerbitzuak: 300; Udaltzaingoa: 41; Hirigintza: 36; Kultura: 6; Ingurumena: 4; Gizarte Zerbitzuak: 5 eta Idazkaritza: 1. Euskara eta Pertsonal sailak, berriz: 0.

## ZERTAZ KEXATZEN GARA?

### > OBRAK ETA ZERBITZU SAILA

Errepideen edo espaloien egoerarengatik: zuloak, labainkor dagoela, zuhaitza jausi dela, estolda solte dagoela; garbitasunarekin lotutakoengatik ere kexu gara, zaborrarekin lotutakoengatik edo lorategiengatik, esaterako.

### > UDALTZAINGOA

Aparkalekuengatik, abiadarekin, abiadura murrizteko bandekin edo zaratekin lotutakoengatik... gara kexu.

### > HIRIGINTZA SAILA

Zirkulazioarengatik, seinaleekin zerikusia duten arazoengatik, obrek eragindako kalteengatik...

## LAU BIDE KEXUA AURKEZTEKO

### > AHOZ AURKEZ DAITEKE KEXUA

Biztanleen Arreta Zerbitzuan bertan egin behar da hori.

### > TELEFONOZ DEITUTA

Telefono zenbakia da 010 Arrasateko deituz gero. Eta 943 25 20 00 Arrasate kanpotik deituz gero.

### > E-POSTA ERABILITA

Posta elektronikoa ere baliagarria da kexua aurkezteko: [baz@arrasate-mondragon.net](mailto:baz@arrasate-mondragon.net).

### > IDATZIZ: BI AUKERA DAUDE

Etxean prestatutako idatzia erabil daiteke edo BAZen emandako inprimakia bete daiteke.

### > ERANTZUNA

Hiri bide daude erantzuna hartzeko: telefonoz, e-mailaz edo idatziz.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Eguena, 5	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Egubakoitz, 6	Irizar	Erguín 11	943 79 12 39
Zapatua, 7	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43
Domeka, 8	Ruiz Perez	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Astelehen, 9	Ruiz Perez	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Martitzena, 10	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Eguaztena, 11	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74

**BERGARA**

Eguena, 5	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitz, 6	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 7	Urrutikoetxea	Oixirono 4	943 76 11 74
Domeka, 8	Urrutikoetxea	Oixirono 4	943 76 11 74
Astelehen, 9	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 10	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 11	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

**ONATI**

Eguena, 5	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitz, 6	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Zapatua, 7	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 8	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehen, 9	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 10	Barrenetxoa	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 11	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

**ARETXABAleta**

Eguena, 5	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43
Egubakoitz, 6	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43
Zapatua, 7	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43
Domeka, 8	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43
Astelehen, 9	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 10	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 11	Iturrealde	Belorrieta 1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainaogak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 77 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67
Kiroldegiaik	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uriarriz, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarriz, Erguín A eta Gorostiza.	

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarriz, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarriz,	

## kale inuesta

# Gaur egungo lan egoera ona dela iruditzen zaizu?



Alex Cristobal  
Langilea  
Elgeta



Iñaki Gillegi  
Erretiratua  
Elgeta



Juan Jesus Iturrikastillo  
Langilea  
Elgeta



Mirari Larrañaga  
Langilea  
Elgeta



Mertxe Salazar  
Erretiratua  
Elgeta

Momentuan ondo dago, baina ahultzen joango da. Horrela ezin du jarraitu. Enpresa gehienak kanpo-ra joaten dira. Elgetan ibarreko herritan baino hobeto gaude. Koadrilan ez daukat inor langabezi.

Lan egoera ona da Elgetan, langabeziaren bat beti izan arren. Lehen, orain eta bihar gertatuko da hori. Orain hobeto gaudela eta mantenduko dela uste dut. Komertzio txikiak agian ez, baina besteak bai.

Elgetan nahiko ondo dagoela iruditzen zait. Langabezia maila txikia dago eta gazte gehienak lanean dabiltsa. Lan baldintzak ez ditut horren ondo ikusten. Kontratuak hobetu egin behar dira.

Inguruan ez daukat inor langabeziaren. Beharbada ez dago lanik nahi duzun horretan, baina ez da egia lana ez dagoenik. Zerbiltzuan asko dago, baina gaizki ordainduta eta ordutegi txarra dauka.

Ondo ikusten dut egoera. Lana egon badago, baina inork ez du zerbitzuetan lan egin nahi. Herriko arrandegia jende ezberdinak hartu du eta denek itxi dute. Orain ere harategi barik geratu behar dugu.

## txaloak eta txistuak



O.E.

# Olakuako lur-jausia ez dute konpondu

Oñatioko Olakua auzoan lur-jausia gertatu zen. Ondoan autoak aparkatzeko tokia egon arren, arriskutsua da. Hori dela-eta, hesiak jarri zituzten. Denbora pasa da eta oraindik konpondu barik jarraitzen du. Tokia konpon dezaten eskatu du kexa bidali digun oñatiar batek.



## asteko datua

# 407

Hilabete oso euritsua izan da amaitu berri den martxoan. Hil osoan, 407 metro kubiko pasatxo jaso ziren Bergarako San Juan auzoan. Martxoaren 18tik aurrera, gainera, euria, txingorra edo elurra egin du egunero.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## 5 galdera...

# Juan Kruz Mendizabal

Santa Marinako apaiza  
Bergara

## 1. Aste Santuan murgiltze- ar gaude. Zer ospatzen du Elizak egunotan?

Aste Santuan kristau Elizak ospatzen duena da bere izate eta jatorriaren arrazoia. Hain zuen, Jesusek nekaldia, heriotza eta piztuera. Esan daiteke hori dela Elizaren sorreraren arrazoia.

## 2. Zertan emango duzu zuk denbora datozen egunetan?

Lanean. Ospatuko ditut ospakizunak eginez. Eguren Santuan kristau elkartearrekin bilduko naiz, baita Egubakoitz Santuan ere. Zapatu gauean, gauerdi aldean, Pazko gaubeila egingo dugu, eta hurrengo egunean, Pazko domeka. Bergarako Santa Mariena eta Elosu artean ibiliko naiz.

## 3. Mezarik egongo da? Ezer berezikirik antolatuko duzu?

Hala da. Meza eguneean eta egubakoitzean egongo da, 18:00etan. Egubakoitzean, eguerdian, gurutzearen inguruko ekimena izango da. Zapatuaren 22:00etan Pazko gaubeila hasiko dugu. Aste Santuko ekimenak zeharo bereziak dira, beti egiten ditugu oinarri antzeko baten inguruan irakurgaiak eta eukaristia. Erritmo ezohikoan ibiltzen gara. Adibidez, Eguren Santuan Azken Afaria oroitzenten dugu, eta Jesusen oinak garbitu zizkiela apostoluei.

## 4. Gainerako egunetak baino jende gehiago joa- ten da elizara?

Orokorrean, esango nizuke baietz, baina Bergaran berria naizenez ez daukat konparaketa egiteko aukerarik. Egia da, baita ere, jende askok alde egiten duela oporretan. Gertatzen da urtean zehar maiztasunez joaten ez direnak joaten direla.

## 5. Turismo erlijioso gisa ezagutzen denari zer deritzozu...

Uste dut beste erritmo batean mugitzen dela hor jendea. Batez ere, prozesioen inguruan. Gipuzkoan, Segurako, Hondarrribiako eta Azkoitiako baino ez daude. Prozesioen bila dabilenari, beharbada, motz geratuko zaio gurea.



EUSKARA &gt; HIZKUNTA POLITIKA

# Arrasatek 5,89ko nota du hizkuntza politikan

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak  
Arrasateko hizkuntza politika neurtu du

Euskal Herriko 66 udalerriren hizkuntza-politika  
aztertuta, Arrasate zerrendaren 10. postuan dago

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasatek 0-10 tarteko neurketan  
5,89 puntu lortu ditu Kontseiluak  
egindako azterketan. Hala aurre  
keztu zuten atzo Kulturaten.  
"Gogorarazi behar dugu euskara  
lehenesten dela ziurtatzeko zapia  
puntu lortu behar direla", azaldu  
zuten. Bestela esanda, neurketa  
ren 10. postuan dago. "Hizkuntza

politikan hutsuneak nabariak  
dira", azaldu zuen Kontseiluko  
ordezkarri Mikel Balentziagak, eta  
egiteko asko dagoela gaineratu  
zuen: "Gipuzkoako herri garra  
ntzitsua da eta euskaldunon kopu  
ru handia dauka, aplikatzen den  
hizkuntza-politika eraginkorra  
izatea ezinbestekoa da euskararen  
normalizazioan aurrera egiteko".

AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

## AHTren gainekeko proiektua Udaleko Hirigintza Sailean dago, edozeinen eskura

Proiektua ikusgai ipini duten arren, ez dute  
alegazioak egiteko epearen gainean  
jakinarazpenik egin

U.M. &gt; ARRASATE

Oraingo asteko Tokiko Gobernu  
Batzarrean jakinarazi dute tren  
bide azpiegituren administrazioak  
Abiadura Handiko Trenaren  
gainekeko proiektua bidali duela  
Arrasateko udaletxera. Hain  
zuzen ere, tren horren linea  
Aramaio-Arrasate eta Arrasate  
Elorrio eta Gasteiz-Bilbo-Donos-

tia zatiei dagokien proiektua dute  
Udaleko Hirigintza Sailean.  
Horrek esan nahi du edozein  
herritar joan ahal dela proiektua  
kontsultatzera. Gainera, ez dute  
ipini hora kontsultatzeko epe  
mugarik: "Guretako bidali digute;  
beraz, hemen egongo da".

Proiektuan, besteak beste,  
Aramaio-Arrasate ibilbidea



ESPAINOLEZ Udal txosten askotan ezarritako irizpideak ez dira errespetatzen eta bakarrik espanolez idatzita daude.

GOIENKARIA

Honako hutsuneak nabarmen  
du zituzten Kontseiluko ordezkarriek:  
ez da udal ordenantzari; zerbitzu  
empresetan, aholkulari  
tza juridiko eta teknikoen txoste  
netan, euskara erabiltzeko irizpi  
deak ez dira behar bezala betetzen  
ari; euskaltegi ez publikoei ez  
zaie azpiegitura eskaaintzen eta  
erdara hutsezko kartel formal  
eta informalak ikus daitezke kalean  
eta udaletxe barruan.

### BESTE HERRIEKIKO KONPARAZIOA

#### > ARRASATEAREN EZAGUTZA

%73,6 da ezagutza maila. Hortik  
%55,9 dira euskaldunak eta %17,7  
ia euskaldunak.

#### > EZAGUTZAREN ARABERA, 1.A

Ezagutza maila kontuan hartuta,  
Arrasate lehenengo da; Elgoibar,  
Soraluze, Beasain, Hondarribia,  
Mungia eta Eibar datoz gero.

#### > EAJ-KOEKIN ALDERATUTA

EAJ alkatetzan duten herriekin  
alderatuta, 8. postuan dago  
Arrasate (esaterako, Bergara  
laugarren dago).

#### > GIPUZKOAN, 6.A

Gipuzkoan 6. postuan dago;  
Azpeitia, Oñati, Tolosa, Bergara,  
eta Orio ditu aurretik.

dakar, 3,39 kilometroko. Eta  
Arrasate-Elorrioko ere bai, 4,44  
kilometroko. Azken ibilbide  
horretan, gainera, tunela eraiki  
dute, Udalatx zeharkatuko  
duena, 3,16 kilometroko.

Hori guztia eta oro har proiekt  
tuaren gainekeo bestelako xehe  
tasunak kontsulta daitezke  
proiektuan: egingo dituzten  
inausketak, plataformak, tunelak  
eta beste. Aldiz, ez dutena zehaz  
tu da alegazioak egiteko eperik  
zabaldu duten. Eta zabaldu gero,  
hori noiz artekoa izango den ere  
ez dute jakinarazi.

#### INFORMAZIO ESKAERA

Horren harira, AHTren kontra  
ko Arrasateko taldeak jakinar  
azi du proiektu hori eskuratzeko  
eskaera egin dutela udaletxe  
eta lehenengo hora "ikusi eta  
aztertu" egin gura dutela, beste  
ezer egin baino lehen.

#### > PERTSONA NAGUSIAK

### Corellara txangoa antolatu dute Abaroa erretiratuen egoitzatik, apirilerako

Apirilaren 18an Corellara (Nafarroa) txangoa egingo dute Abaroatik. Izenematea egin behar da apirilaren 10ean, 10:30ean. Txartelak, berriz, emango dituzte apirilaren 16an, 10:30ean. 22 euroko prezioa zehaztu dute eta bi autobus antolatuko dituzte. Txartelen bat libre geratuz gero, Arrasateko gainerako erretiratutu elkartetako kideek parte har dezakete txangoan.

#### > AZPIEGITURAK

### Osoko bilkurak onartu beharko ditu Ferixalekua-Altamira eta Makatzenako igogailuak

Bigarren astez, Tokiko Gobernu Batzordean berbagai izan dute Ferixalekua-Altamira eta Makatzenan igogailu publikoak ipintze  
ko proiektua. Hain zuzen ere, igogailu horien gainekeo proiekt  
ua idaztea eta dagozkion obrak egitea adjudikatzeko klausula  
teknikoen agiria onartu edo ez erabaki behar zuten. Baino, bigar  
ren astez, puntu hori bertan behera geratu da. Are gehiago, era  
bakti dute puntu hori osoko bilkurak landu beharko dutela. Horrek  
esan nahi du atzerapen handia izango duela.

	<b>Metal aroztegia eta PVC</b> Leihoak eta itxiek  <b>Ekur aroztegia</b> Leihoak Ateak Armairu enpotratuak Armairu-fronteak Mota guztietako zoruak Lixatua eta bernizatua
<b>ZAHARBERRITZEAK</b>	<b>Osagarriak</b>
PVC, ALUMINIOA, EGURRA	Neurrira egindako alfonbrak Gortinak, mahaiak eta aulkia
<b>Erakusketa eta biltegia:</b> Kale txiki 3 beheha (Musakola) Tel. eta faxa: 943 77 11 20	

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko  
sistema berri eta pertsonalizatua*

**Gubi**

ILE APAINDEGIA  
 Otalora Lizentziaduna 5  
 Tel.: 943 79 12 74

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

KULTURA EKINTZAK > AED-REN HILEKO EKINTZAK

# Arrasate Lehiaketen sari banaketa eta Hiru Haundixek, apirilean

Aste Santu ostean, hilaren 26an, egingo dute XX. Arrasate Lehiaketen sari banaketa

Hiru Haundixek Hiru Egunetan ekimenetan esku hartzeo 26a baino lehen eman behar da izena

IKER BARANDIARAN > ARRASATE  
AEDko arduradunak buru-bela-rrri dabilta Aste Santuko oporren osterako egingo dituzten hainbat ekitaldi prestatzen: Mugarriz Mugarriz, Hiru Haundixek Hiru Egunetan eta 20. Arrasate Lehiaketa, hain zuzen ere.

Hilaren 22an, Arrasateko inguruak ezagutzeo Mugarriz Mugarriz ekimena egingo dute, Besaide eta Arrasate Kirol Proiektuaren laguntzarekin. Hala, oraingoan Garagartzako kobak bisitatzen joango dira.

**HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN**  
Mendi ibilaldiekin jarraituta, hilaren 29an, 30ean eta 31n Hiru Haundixek Hiru Egunetan eki-mena egingo dute. Urtero moduan, Aizkorri, Anboto eta

Gorbeia mendiak igoko dituzte. Lehenengo etapa Zalduondotik abiatuko da Aizkorriantz, eta Leintz Gatzagan bukatuko dute. Bigarren egunean, berriz, Ara-maio zeharkatu ostean Anbotoko gailurrera igoko dira. Eta hirugarren etapan Gorbeiarantz joango dira. Handik Murura jai-tsiko dira, eta hiru eguneko ibilaldia bukatutzat emango dute.

AEDko baziideek 35 euro ordaindu beharko dute; eta baziide ez direnek, 50 euro. Horren barruan gosariak, hamaiketakoa-k, afariak eta lo egiteko lekua daude. Izenematea apirilaren 25a baino lehenago egin beharko da AEDk Pablo Uranga kalean duen bulegoan, 943 77 12 28 telefonoan edo [gazteak@aedelkarte.com](mailto:gazteak@aedelkarte.com) helbidera idatzita.



SARI BANAKETA Argazkian iazko sari banaketa ekitaldia.

GOIENKARIA

Sari banaketa hilaren 26rako iragarri dute, eta sari bakoitzaz zeinek jasoko duen azaldu ez duten arren, honako hauek dira epaimahaiaiak sailkatu dituenak: ipuinaren alorrean, Josune Milan Lopez, Juan Jose Caceres Gonzalez, Maddi Bengoetxea Romanatezabala, Gihane Urtzelai Arregi, Itsaso Jauregi Arraburu, Jokin Mendizabal Agirre eta Hasier Larrea Herrero, hain zuzen ere.

Bertso paperari dagokionez, honako hauek izango dira sari-tuak: Irene Lasaga Arana, Maddi Labayen Iraeta eta Xabi Igoa.

Poesian, beste hauek: Gihane Urtzelai Arregi, Karmen Idoate Ortueta eta Ainhoa Lizarralde Igartua.

Bukatzeko, komikiaren alopean, honako hauek joango dira sari banaketara: Jon Urkizu Izazusta, Lexuri Doyague Loiti, Maite Sanchez Martin, Iñigo Merino, Ainara Oribe eta Michael Marcos Murillo.

Aste Santu ostera arte itxaron beharko dute zer sari jaso duten jakiteko.

## SARI BANAKETA, HILAREN 26AN

Bestalde, AED elkartek urtero antolatzen dituen Arrasate Lehiakete 20. aldia bete dute aurten. Aurtengoan, bada, lehiaketa

horietara 118 lan aurkeztu dituzte guztira: 59 bertso paper, 41 ipuin, hamaika poesia eta zazpi komiki, hain zuzen ere; aurreko urteen antzera, alegia.

dea ibarrean gera dadin nahi badugu, proposamen interesgarriak eskaini behar zaizkio".

## APARKALEKUA LUR AZPIAN

Gune komertziala handitzeaz gainera, baina, aparkaleku kopuruak ere handitu nahi dute Eros-

kiko arduradunek, "orain daudenak baino 500 aparkaleku inguru gehiago", jakinarazi du Sanzek. Gaineratu du lur azpikoak izango direla.

Proiektu hori gauzatzeko, baina, burokrazia tramite asko falta dira egiteko oraindik.

## XEHETASUNAK

### Dena ondo badoa, bi urte barru ikusiko dugu

Gaur egungo hipermerkatuaren eraikina handitu egin gura dute aurreantz, aparkalekurantz. 2.000 metro karratu inguru handituko dute. Eta lur azpiko aparkalekuak gehituko dizkiote, 500 bat gehiago. Hamar milioi euroko inbertsioa egingo dute horretarako.

Proiektuari tramite asko falta zaizkio, baina, dena ondo badoa, bi urte barru gauzatzeko ahal izango dute. Gauzatzuz gero, Deba ibar osoko gune komertzialik handiena izango litzateke, Abadiñokoaren antzerakoa.

Oraindik ez dute merkatarien proposamen zehatzik aztertu, baina interesa badutela argi dute Eroskikoek: "Arrasatekoak badira, hobeto".

ZERBITZUAK > EROSKIREN PROIEKTUA

# Eroski hipermerkatuak udal baimena eskatu du Musakolako zentroa handitu ahal izateko

Gune komertziala handitu gura dute, hipermerkatutik kanpo dauden saltokiak leku handiagoa izan dezaten; eta lur azpiko aparkaleku eraiki gura dute

UBANE MADERA > ARRASATE  
Arruena parke ondoko Eroski hipermerkatuak gune komertziala handitu gura du 2.000 metro koadro inguru: "Merkatariek espazio handiagoa izan dezaten" egin gura dute hori; hala azaldu

dio GOIENKARIAri Eroskiko prentsa arduradun Josu Sanzek.

Batez ere, Gasteizek duen eskaintza zabalarekin lehiatu beharrarengatik aurkeztu du Eroskik proiektua Arrasateko Udalean: "Zentroak daramatzan


18 urteetan gauzak aldatzen joan dira. Ibarrekoei begira aukera gehiago eskaini nahi ditugu, eskaintza interesgarria izateko. Azken batean, ondo lehiatzeko. Autobide berriarekin Gasteiz 15 minutura izango dugu, eta, jen-



Ferrerias 12 behe 20.500 ARRASATE Tel.: 943 79 56 04



943 711768



Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**ETXEBIZITZAK** > OREGI EHUNGINTZA ENPRESA DAGOEN TOKIAN EGINGO DITUZTE

# San Lorentzo kalean 72 etxebizitzak egingo dituzte, garaje eta guzti

Uztailean hasiko dituzte lanak eta bukatutakoan zabalagoa izango da San Lorentzo kalea, metro batzuk atzerago egingo dituzte eta

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA  
San Lorentzo kalean etxebizitzak egitea onartu du udalbatzak asteleheneko ezohiko osoko bilkuraren (EB eta PP falta ziren). Oregi ehungintza lantegia dagoen tokian egingo dituzte, hain zuzen ere. Ingeslan SL enpresarekin adostu du hirigintza hitzarmen hori Bergarako Udalak.

## 72 ETXEBIZITZA

Guztira 72 etxebizitzak egingo dituzte San Lorentzo kalean. Hiru bloke nagusitan banatuta egongo dira: erdiko blokean 36 eta ondoko bietan, 18na. Gehienak logela bakarrekoak edo bikoak izango dira, baina egingo dituz-



SAN LORENTZO Oregi enpresa dagoen tokian egingo dituzte etxebizitzak.

familiaren etorkizuna negoziatzen ari da enpresa hori: "Nork bere egoera propioa du eta orain ari gara aztertzen eta negoziatzen dirua, etxebizitza edo zer nahiago duten jakiteko", dio Ingeslan enpresako ordezkari batek.

## KALEA, ZABALAGOA

Uztailean hasiko dira lehengo ehungintza enpresa botatzen eta lanak bukatzeko urte pare bat beharko dituztela kalkulatu du Ingeslan enpresak. Orain erre-pidearen kontran daude eraikin horiek, baina etxebizitza berriak metro batzuk atzerago egingo dituzte, estankoaren parean, gutxi gorabehera. "Errekaren erreferentzia izango dugu kontuan etxebizitzak lerrokatzen", esan du Ingeslaneko ordezkariak. Gero, beraz, zabalagoa izango da San Lorentzo kalea.

Hitzarmen horrekin, urbanizatutako lurralak balio duenaren %10 jasoko du Udalak. Kopuru hori ez da etxebizitza bloke bat egiteko adinakoa eta beraz, eskuan jasoko du Udalak dago-kiona; 270.776 euro guztira.

te hiru logelakoak ere. Etxebizitza bakotzak garaje bat izango du, gutxienez.

San Lorentzo 3, 5, 7, 9, 11, eta 13. zenbakia dauden tokian egingo dituzte etxebizitzak

horiek. Tartean daude urtetan itxita dagoen Oregi ehungintza enpresa izandakoa eta lehengo arau subsidiarioen arabera ordenazioz kanpo dauden eraikin batzuk.

Etxebizitzak eraikiko dituen Ingeslan enpresa lurzoruanen %90en jabe da eta gelditzen zaion %10a lortzeko akordiotan ari da orain. Horrekin batera, egun zenbaki horietan bizi diren lau

## Movillas eremuan 219 etxebizitzak egitea sinatu dute Udalak eta eraikuntza etxeak

Urtarrileko osoko bilkuraren onartu zuen udalbatzak Urteaga kalearen urbanizazio hitzarmena eta astelehenean, apirilaren 2an, sinatu zuten hitzarmen hori Udalak eta Madura Etxegintza SL eraikuntza enpresak. 219 etxebizitzak egingo dituzte guztira Movillas lantegia egondako eremuan: 104 babestakoak eta 115 libreak. Lurzoruan lege berriak dio Udalak jasoko duela aprobetxamendu urbanistikoaren %10. Zati hori etxebizitzak bloke baten balioaren bestekoa bada, etxebizitzak bloke bat hartzen du Udalak, eta bestela, dirua. Kasu horretan, 40 etxebizitzako bloke bat, guztiz urbanizatua, eta 68.000 euro jaso ditu Udalak, %10aren eta etxe blokearen balioaren differentzia. Bloke horretan, Canalejasen eta San Miguel kaleko 7 eta 9. zenbakietan bizi ziren bizilagunek hartuko dute ostatu, etxebizitzak horiek bota egingo dituzte eta.


Hitzarmena sinatuta, obrak hasteko litzatzioa heldu bezain laster hasiko dira Urteaga kalearen urbanizazio lanak egiten. Bergarakitik Antzuolarako norabidean eskumara gelditzen den orubean babestutako etxebizitzak egingo dituzte eta ezkerrean, libreak. Gainera, orain lur azpian dagoen Uhola erreka garbitu eta bistaratu egingo dute.



Victoriano Gallastegi alkatea eta Bittor Alberdi hitzarmena sinatzen.

OIHANA ELORTZA

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

**ETXEERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

HIRIGINTZA > OZIO ENPRESARI ORAIN ARTEKO LANAK LIKIDATUKO DIZKIO UDALAK

# Domingo Iralako lanak berriro adjudikatuko dituzte

Ozio enpresak egindako proposamena ez onartea erabaki du Udalak

Premiazko bidea jarraitu arren, bi hilabete pasako dira berriro lanak hasi orduko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ozio enpresak Domingo Irala kalean orain arte egin dituen lanak likidatu eta gelditzen diren obrak berriro adjudikatza era-baki du Udalak.

Orain arteko lanak egin dituen Ozio enpresak proposamen bat egin dio Udalari, baina hark ez du onartu. Ozio enpresak esan dio Udalari egiteke dauden lanak kopuru jakin baten truke egingo dituela. Udalak obra zuzendariai pasa dio proposamen hori eta hark esan du diru kopuru horrekin baino gutxiago-rekin egin daitezkeela lan horiek. Izan ere, Oziok proposatutako aurrekontua hasierakoa baino handiagoa da. Obra zuzendaria-ri kasu eginez erabaki du Udalak eskaintza baztertzea.

PREMIAZKO BIDEA

Erabaki horrekin batera, egiteke gelditu diren lanak berriro adjudikatza pentsatu du Udalak. Premiazko bidea jarraituta egingo dute hori. Lehenengo, ahalik eta lasterren ordaindoko dizkio Udalak Ozio enpresari orain arte egindako lanak. Lanak likidatu ostean, premiazko adjudikazioa egiteko bidea hartuko dute: baldintzen orriak idatzia eta lehiaketa publikoa deitu.

Premiazko bideak jarraitu arren, prozesuak epe jakin batzuk bete behar ditu. Beraz, hilabete pare bat pasako dira Domingo Irala kaleko lanak beste enpresa bat esleitu eta hura lanean hasi orduko. Atzerapenak atzerapen, Victoriano Gallastegi alkateak esan du enpresa berriari esku-



DOMINGO IRALA Martxoaren hasiera ezkerro daude geldi lanak. O.E.

ko diotela saia dadin galdu-tako denbora ahalik eta gehien berreskuratzen.

Irizar kaletik Telefonicara bitarteko zatia altxatu behar zuen

Lasarteko Ozio Eraikuntza enpre-sak; 1,4 milioi eurotan adjudika-tu zioten lan hori, Domingo Iralako lehen fasea. Martxoaren hasiera ezkerro daude geldi lanak.

MUSIKA ESKOLA > ASKOTARIKO KONTZERTU ETA IKUSKIZUNAK ANTOLATU DITU

Apirilaren 17tik 27ra 'Apirilean Musika' delako egitaraua antolatu dute, hirugarrenez

Hoge bat emanaldik osatzen dute egitaraua eta Musika Eskolan dauden 550 ikasleek hartuko dute parte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Astelehenean 'Apirilean Musika' izeneko egitaraua aurkeztu zuten Musika Eskolako arduradunek. Antolatzen duten hirugarren aldia da, eta emanaldiz josita dator: 20 bat emanaldi egingo dituzte hilaren 17an hasi eta 27ra bitartean.

MUSIKA KALERA

Maria Jesus Ugalde, Musika Eskolako zuzendariak, azaldu-

tako moduan, "egitarauaren helburua da ikasleek eskola barruan egiten duten lana herritarrei era-kustea". Hala, Bergarak eskain-tzen dituen baliabideak aprobe-txatu eta emanaldiok herrian barrena dauden hainbat areto eta elizatan egingo dituzte. Besteak beste, Jam aretoan, osoko bil-kuren aretoan eta Sierbetako eta Mizpirualdeko elizetan.

Baina urrats bat gehiago ere egin nahi izan dute herritarrei

musika gehiago hurbiltzeko asmoz: "Konturatu gara areto barruan egindako emanaldietara, batez ere, ikasleen senide eta lagunak etortzen direla. Hala, kalean ere egingo ditugu emanaldiak: Espolioan, San Martin plazan-eta".

Lehen emanaldia hilaren 17an egingo dute, 15:00etan, Aranzadi ikastolan. *Kriskitin musikaren bila* delako ipuin musikal-egingo dute. Haren ondotik, egu-nero, ekitaldi gehiago izango dira.

> KILOMETROAK  
**Luis Laskurainen**  
margolana, 62  
zenbakiaren-dako

Luis Laskurain pintore ber-gararraren margolana bat zoz-ketatu zuten Erramu-zapa-tuan. Kilometroak 07ren aldeko zozketa izan da eta hauxe da zenbaki saritua: 62.

Zenbaki horren jabeak apirilaren 16tik aurrera jaso dezake pintura. Aranzadi ikastolako San Martin plaza-ko eraikineko idazkaritzara joan behar du saridunak mar-golana jasotzera.

Zozketatua duten Luis Laskurainen margoa Mujika jantzi dendent dago ikusgai, Barrenkalean.

> KIROLAK  
**Kiroldegia itxita Aste Santuan, eta Pazko Astean Agorrosin**

Labegaraietako kiroldegia itxita egongo da Aste Santuan, apirilaren 5etik 8ra, biak barne zehazki. Agorrosin, berriz, Pazko Astean itxi-ko dute, apirilaren 10etik 15era. Garbiketa lanak egin behar dituzte egun horietan Agorrosinen, eta horregatik egongo dira itxita igerilekuak eta gimnasioak. Zabalik egongo den Agorrosingo zerbitzu bakarra taberna izango da. Apirilaren 16tik aurrera, berriz, kiroldegia eta Agorrosin zabalik egongo dira.

> HAUTESKUNDEAK  
**Datorren astea da erroldak ikusteko eta erreklamatzea epea**

Apirilaren 9tik 16ra egongo da maiatzeko hauteskunde-tarako hautesleean zerrenda udaletxean. Norbaitek erre-klamazioa egin behar badu, tarte horretan egin behar du. Behin betiko zerrenda apiri-laren 20an argitaratuko dute.

Maiatzaren 27an egingo dituzte udal eta foru hauteskundeak, eta, legeak jarri-tako epeei kasu eginez, apirilaren 28tik maiatzaren 1a bitar-tean egingo dute mahaian egen behar dutenen zozketa.

## POL-POL Taberna



943 76 07 78. Bergara

## KONDE PANADEROKUA



Burdinatxe 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## Aldoka Maldoka

TABERNA  
Kruz Gallastegi  
BERGARA

## UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean  
• Horma armairuak  
• Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerlek zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAUKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

ZERBITZUAK &gt; MARTXOKO OSOKO BILKURAN

# Ludotekaren proiektua idazteko baldintzak, onartuta

14.400 euroko aurrekontua du ludotekaren proiektua idazteak, BEZA kanpo

3 eta 6 urtekoendako zerbitzua bada ere, 9 eta 11koendako ere ekintzak egingo dituzte

**OIHANA ELORTZA > OÑATI**  
Ludotekaren proiektua idazteko baldintza administratiboak onartu ditu Udalak. Martxoko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak era-bakia, aho batez. EB eta PSE-EE alderdietako zinegotziak falta ziren.

Baldintza administratibo horien arabera, 14.400 euroko aurrekontua du ludotekaren proiektua idazteak, BEZA kanpo. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute orain, eta, behin hori eginda, interesatuek 26 eguneko epea dute eskaintzak aurkezteko. Eskaintza horiek aztertu eta Udalak bat aukeratu ostean, enpresa horrek 45 eguneko epea izango du proiektua bera idazteko.

**DATORREN IKASTURTERAKO**  
Proiektua idatzita dagoenean, Udalak beste deialdi bat egingo du proiektuaren obrak egingo



LOKALA Ludoteka Lizaur kalean egongo da, lehen psikopedagogiko zerbitzua egondako lokalean.

O.E.

dituen enpresa aukeratzeko, lehiaketa bidez hori ere. Udalaren asmoa da datorren ikasturtearen hasierarako obrak bukatuta egotea eta ludoteka zabaldu ahal izatea.

Ludoteka hori Lizaur kalean egongo da, lehen psikopedagogiko zerbitzua zegoen tokian. 3 eta 6 urte bitarteko umeendako ludoteka zerbitzua eskainiko dute laster orain itxita dagoen lokal

horretan. Ludotekako zerbitzuaz gain, 9 eta 11 urte bitarteko umeendako ekintza puntualak ere antolatuko dituzte. Horretarako, herriko beste azpiegiturak ere erabiliko dituzte.



GOIENKARIA

## Jon Agirre, boulderreko txapeldun

Jon Agirre oñatiarra da boulderreko txapelduna 18 urtetik azpiko kategorian. Martxoaren 31n izendatu zuten Agirre txapeldun, Gasteizko Hegoalde gizarte etxearen. 53 eskalatzailek hartu zuten parte proba hartzan. Berez, bigarren egin zuen Jon Agirrek, baina sailkapen nagusian hura da txapelduna. 2007ko boulder liga otsail eta martxo bitartean jokatu dute, Gasteizen, Amurrian eta Arrasaten.

KULTURA &gt; OGAREN ETA UDALAREN ESKAITZAK

## Akelarrea, kontzertuak eta txistulari alardea apirilerako

Portu tabernan, Sandailin, Santa Anan eta kultura etxearen dira ekitaldiak

O.E. &gt; OÑATI

Gazte Asanbladak eta Udaleko Kultura Sailak egitaraua bana egin dute apirilerako antolatu dituzten ekitaldiekin.

**AKELARREA SANDAILIN**

Biharko, egubakoitza, adibidez, akelarrea antolatu du Gaste Asanbladak. Sandailin egingo dute, Araotzen. Haraino prozesioan joango dira; prozesio ateo egingo dute Herriko Plazatik Sandailiraino, 15:00etan irtenda. Horrez gain, beldurrezko film sorta eta kontzertuak ere

antolatu dituzte apirilerako. Apirilaren 14an, adibidez, Manolo Kabezaboloren kontzertua egongo da Portun eta 28an, Raul Lasa bakarlarria entzuteko aukera. AHTren aurkako hitzaldia eta egun osoko egitaraua era antolatu dituzte apirilaren 20rako eta 21rako.

**UMEENDAKO ANTZERKIA**

Udalak, bestalde, umeendako antzerkia antolatu du apirilaren 22rako. *Pizti domatzalea* antzezlanak ekarriko du Han-katxo Produkzioak taldeak eta 5 urtetik gorako umeendako izango da. Apirilaren 16tik 20ra egongo dira gonbidapenak kultura etxearen. Horren aurretik, apirilaren 21ean, txistularien alardea egongo da eta hilaren 20an, Pikor Teatro taldearen *Qtmeto/jokoaut* antzezlanan.

ERRETIRATUAK

## Batzar orokorra egingo dute Pake Lekun

Estatutuak egokitzeko proposamenak onartuko dituzte

O.E. &gt; OÑATI

Oñatioko erretiratuen eta pensiodunen elkarrean batzar orokorra egingo du. Apirilaren 11n egingo dute, Santa Anan, 17:00etan. Puntu garrantzitsu hauek eztabaidatuko dituzte, besteak beste: 2006ko txostena onartu, 2006ko gas-tuak eta irabaziak aztertu eta 2007ko aurrekontua onartu. Batzarraren bigarren zatian, zuzendaritzatza batzordea berriztatuko dute. Bestalde, batzar orokorra amaitutakoan, estatutu berriak onartuko dituzte Pake Lekuko bazkideek. Aldaketak ikusi gura dituenak elkarlean diu eskuragai.


HAUTESKUNDEAK

## Julio Perez de Arriluzea da PPko hautagaia

Zerrenda nortzuk osatuko duten erabakitzeko dute

O.E. &gt; OÑATI

Julio Perez de Arriluzea izango da PPko hautagaia Oñatioko alkate izateko. Zerrenda nortzuk osatuko duten oraindik ez du aurreratu. "Oraindik epe barruan gaude eta aldaketak egon daitezkeenez, erabat itxita dagoenean jakin araziko dizuet", esan du Julio Perez de Arriluzeak. Hauteskunde programa ere oraindik zehaztu gabe dutela esan du PPko hautagaia. 2006ko otsailetik da Julio Perez de Arriluzea PPko zinegotzia Oñatioko Udalean.



Perez de Arriluzea. KONTZEJUPETIK

# KAIKO TABERNA

## Berriz zuekin!



### ZATOZ INAUGURAZIORA!

Apirilaren 9an, 19:00etan.

Zurradero 4an, Bergara

## &gt; AZOKA

**Liburu truke azoka egiteko liburuak gura dituzte ludotekan**

Liburu truke azoka antolatu du Algara ludotekak apirila-ren 21erako, zapatua. Horre-tarako, baina, liburuak gura dituzte, eta ludotekara berta-ra eroan behar dira hilaren 20a bitartean. Ludoteka aurrean egingo dute azoka, 11:00etatik 13:30era bitartean, eta ume guztiak hurreratu ahal izan-go dira, bazi-kide izan edo ez.

Ludoteka itxita egongo da Pazko Astean, eta hilaren 16an zabalduko dute berriro. 19rako, eguna, jolasak anto-latu dituzte 7 eta 12 urte artekoendako; 18:00etan dira.

## &gt; AUZOAK

**Mendiola eta Aozaratzan esango dituzte mezak**

Aste Santuko egunotan, auzo-eta-n ere izango dituzte eliz-kizunak. Bihar, Eguna Santua, Mendiola izango dute, 17:00etan. Egubakoitz San-tuan ez dute izango elizkizu-nik auzoetan, eta Pazko Domekako meza nagusia esa-teko bi auzotara iritsiko da Pablo Letona abadea: 11:30ean Mendiolarra eta 12:30ean Aoza-ratzara.

Hain zuzen, apirileko domeketako mezak Mendiola eta Aozaratzan izango dira, aipatutako orduetan.

## &gt; KZGUNEA

**Hilaren 10etik aurrera zabalduko dute, goizez**

Oporrak hartu ditu KZgune-ak, eta itxita egongo da hilaren 10a arte. Pazko Astean zabalduko dute, goizez, 09:00etatik 13:00etara, eta hainbat ikastaro antolatu dituzte: sinadura elektronika, elikadura segurtasuna, zure kanala sintonizatu, pos-tal bat bidali eta irudi digita-la zelan landu. Gainera, IT txartela eskuratzeko azter-ka eta egingo dute, hilaren 11n, eguztena, 09:00etan.

## INGURUMENA &gt; KONPOSTAJEA

# Hondakin organikoak batzen hasiko dira gurean, uda ostean

Debagoienean, Aretxabaletan jarriko dute abian, eta voluntario eske dabilta

Edukiontzi marroiak jarriko dituzte, eta giltza izango dute zabaltzeko

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Guztioen esku dago, ekin konpostatzeari kanpaina jarri zuen abian Aldundiak orain hilabete. Hondakin organikoak bereizi eta edukiontzia berezietan jasotzea deia da, ondoren konposta egiteko. Aretxabaleta sartu da proiektu horretan.

**PRESTATU GABEKOAK**  
Gai organikoak bereizita bilduz gero konposta sor daiteke, eta hondakinak zati handi bat apro-betxatu. Hala, prestatu gabeko landare-jakien hondakinak bereizteko dei egin digu Aldundiak –konpostaren kalitatea ber-matzeko-, eta horretarako airez-tatzeko zuloak dituen ontzi baten jaso behar dira hondakinok.



**LANDARE-JAKIAK** Prestatu gabeko landare-jakiak bereizita batu beharko dituzte izena emandako voluntarioek.

M.A.

Edukiontzi bereziak jarriko dituzte gero, lehendik dauden alboan. Marroiak izango dira, eta giltzarekin zabalduko dira, inork ez dezan kutsatu beste hon-dakinak batzuk botata. Jasotako

hondakinak Azpeitian egingo duten konposta egiteko instalazio-riora eroango dituzte.

Uda ostean jarriko dute abian proiektua, baina dagoeneko voluntarioen izenak jasotzen

dabil Aldundia. Harrera ona izan duela kanpainak esan digute, eta hainbat aretxabaletarrek eman duela izena. Interesatuek 902 10 10 48 telefono zenbakira egin behar dute dei.

**Umeak bataiatuko dituzte zapatu gauean, parrokian, pazko gaubeila ospatzen duten bitartean**

**M.A. > ARETXABAleta**  
Bihar, eguna, hasiko dira Aste Santua ospatzen kristauak, eta elizkizun asko izango dituzte aste-lehenera bitartean.

Bihar, bakarkako aitortzak eginda hasiko dute eguna,

## ASTE SANTUA &gt; EGITARAUA

# Urtero legez gurutze-bidea egingo dute Isurieta, egubakoitzean

11:00etatik 12:00etara, eta arra-tsaldean Jaunaren azken afari-ko eukaristia ospatuko dute, 18:00etan agustindarren komen-tuan eta 19:00etan parrokian.

Egubakoitzean, 11:00etan, gaubeila ospatuko dute komen-tuan eta parrokian, eta orduan

rietary parrokiatik aterata; eta 16:00etan Jaunaren nekaldiko ospakizuna izango dute komen-tuan eta 17:30ean parrokian.

Zapatuan, 21:00etan, pazko gaubeila ospatuko dute komen-tuan eta parrokian, eta orduan

hainbat ume bataiatuko dituzte. Eta domekan, meza nagusia izan-go da, 11:30ean, parrokian.

Horiez gain, agustindarren komentuan egingo dituzten otoi-tzaldietan parte hartzeko auke-ra izango dute kristauak.

**TABERNA**

**TRLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

**MAPFRE**

**EPE MOTZERA EGINDAKO INBERTSIOAK**  
**ETEKINIK EMATEN EZ DUELA USTE BADUZU,**  
**ZATOZ MAPFREKO DINERVIDA EZAGUTZERA!**  
**%8a EMATEN DIZU!**

**ETOR ZAITEZ INFORMAZIO BILA!**

Errekabarren 3 ARETXABAleta  
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

HEZKUNTZA > ALDIZKARI ELEKTRONIKOA

# Herriko berriak 'Euskonews Gaztea'-n

Kurtzebarri eskolako DBHko hirugarren mailako taldeko batek hainbat artikulu idatzi ditu

Apirl bukaeran jarriko dute ikusgai aldizkari elektronikoan Aretxabaletaren gainean egindakoa

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta  
*Euskonews Gaztea* aldizkarirako lanean jardun zuen joan zen astean Kurtzebarri eskolako ikasle talde bat. Aretxabaletako berriak landu zituzten, eta apirl bukaeran izango dira ikusgai.

## IKASLEEK EGINDAKOA

Aldizkari elektronikoa da *Euskonews*, eta haren gehigarria *Euskonews Gaztea*. Euskal Herriko ikastetxeetako ikasleek egiten dute, eta egubakoitzetan jartzen dute zenbakia ikusgai.

Joan zen eguztenean Kurtzebarri eskolan izan zen aldizkaria-rena arduraduna, Zuriñe Velez de

Mendizabal arrasatearra. DBHko hirugarren mailakoekin jardun zuen lanean, Prentsa Tallerreko ikasgaia hautatu duten 11 ikaslekin. Artikuluak aurrez landuta zituzten, eta zelan makeztatu erakutsi zien Velez de Mendizabalek, baita *on-line* agertzeko zelan prestatu ere.

## ARETXABALETAKO KONTUAK

Hiru artikulu eta elkarrizketa bat idatzi dituzte ikasleek: "Artikuluak Aretxabaletaren gainezkoak dira: inguruko ibilbideak, Urkulu urtegia eta jaien gainezkoak; Aratusteak landu dituzte batez ere. Eta elkarrizketa Ando-



LANEAN Ikasle bat lanean Zuriñe Velez de Mendizabal arduradunarekin.

M.A.

ni Zubizarretari egin diote", azaldu zigun Prentsa Tallerreko arduradun Eli Agirrek.

Aretxabaletarrek egindako aldizkaria apirl bukaeran jarri-

ko dute ikusgai, baina arduradunak ez zekien hilaren 20an edo 27an izango den. Kontsultatu gura izanez gero, hona helbidea: [www.gaztea.euskonews.com](http://www.gaztea.euskonews.com)

## Aretxabaleta institutuak eskuetan dauka zilarrezko Q saria

Joan zen astean eman zion zilarrezko Q sariaren ziurtagiria Lanbide Heziketako sailburuorde Iñaki Muxikak. Institutuko zuzendari Amaia Arantzabalek jaso zuen langile guztien izenean, eta bertan izan zituen lagun irakasle, administrari, garbitzaile eta beste langile batzuk. Urte askoan egindako lanaren saria dela aipatu zuen zuzendariak.



JOXEKI

**EZBUTU TABERNA**  
ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA  
Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**Mobiliario  
ARENaza**  
• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**Iber**  
Loteria  
Paper denda  
Liburuak  
Otalora 2.  
ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 04 39

## bere ustez



Katalin Antxita

Belaunak urratu zizkidana da bera

Ilusio: 1.Sentimenez hau tematen denaren interpretazio okerra. 2.Irudimenean gogoko den zerbait lortzeko gura. 3.Poza.

Ilusioz etortzen naiz ikasle pisu anarkikotik asteburuak igarotzen ditudan etxe zibilizatura. Eta ilusio nindoan egunean telefozoz egindako zitara, kuadrilakoengana, plazapetik baina ez plazara.

Anitza da herriko plaza, ez ugaria. Dagokionetik ez du asko. Baina gauza asko dagozkio.

Aitak kontatu zidan behin, Realekoei egin zietela

**"Anitza da herriko plaza, ez ugaria. Dagokionetik ez du asko. Baina gauza asko dagozkio"**

arrera. Baditut buruan flash batzuk *Goenkale*-koak etorri zirenko zapalkadez beteak. *Euskaraoko*-ko irudia gardena ikusten dut. Eta herriko plazak kontatzeko dituenak... hauek konnotatibogaok. Batzuentzat herriko plaza soila dena, bestentzat elkarren arteko maitetasuna loratu zeneko gune berezia, edo lehenengo plantoia jaso zuteneko leku arrotza. Niretzat, inprintako mailetan, egunero joko berri bat asmatzeko neuronak indarberri-tzen zizkidan lauterditako sardinazko bokadiloaz gozatzeko leku aproposena. Eta zuretzat?

Euforiaz betetako ilusioa -mozkor psikologikoaren antzekoa- du herriko plazak, bere egunerokoan kontatu ezin direnak idazten jarraitzekoa.

**((112))  
SOS DEIAK**

UDALA &gt; AURREKONTUAK 2007

# PSE-EEk, Elizateek eta EBk ez dituzte aurrekontuak babestu

Elizateetako ordezkariak eta PSE-EEk eskatu zuten bidegorria Aldundiak osorik finantzatzeko

Ezker Batuaren alegazioak atzera bota zituzten, eta 6.494.488 euroko aurrekontua onartu zuten

**IKER BARANDIAREN > ESKORIATZA**  
Herenegun, astelehena, ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Beste gai batzuen artean, 2007ko aurrekontuak onartu zituzten. Hala, 6.494.488 euro izango da aurretan erabilgarri izango duten diru partida.

Kopuru horren partida handienak bidegorriak, Dorletako urbanizazioak, San Juan kaleak eta Zubiateko labea eramango dituzte.

**GIZARTE ZERBITZUEN ALEGAZIOAK**  
Udaleko Gizarte Zerbitzuek hainbat alegazio aurkeztu zizkieten aurrekontuei. Hain zuzen ere, preso politikoen familieei dirulaguntzak emateko 800 euroko partida sortzea; eta herritarrei lanbideratzen laguntzeko beste 620 euro, hurrenez hurren. Bestalde, etxez etxeko gizarte-zerbitzuari

dagokion partidari 6.669 euro kentza proposatu dute, iaz halako premiarik egon ez zelako. Hortaz, kopuru hori gizarte-ongizateko beste gastuetan sartzea eskatu zuen.

#### EB-K ERE HAINBAT ALEGAZIO

Ezker Batuak ere hainbat alegazio aurkeztu zizkien aurrekontuei: alderdi politikoei subentzioak kentza; Goienari ematen zaion laguntza erdira txikitzea; gurasoek elkarteari dirulaguntza handitzea; eta Luis Ezeizan eguzki plakak jartzeko partida handitzea, besteak beste.

Gainontzeko alderdi eta taldeek ezetz bozkatu zieten EBren alegazio guztiei. Are gehiago, Juan Carlos Bengoa alkateak erantzun zien ezin dituztela herriko elkarteen laguntzak nolanahi igo edo jaitsi. Baita ere gogora-



DESADOSTASUNAK Aurrekontuak onartzeko astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran ika-mika izan zen. IKER BARANDIAREN

razi zien Goienari eskatzen duena baino diru gutxiago ematen zaiola. Horrez gain, gogoratu zuen Goienak euskara bultzatze-ko lan handia egiten duela, eta komeni dela halako erabaki bat hartu aurretik ibarreko beste udalekin bat egitea.

#### ELIZATEETAKOAK HASERRE

Elizateetako ordezkari Javier Villarrek haserrea agertu zuen Elizateetarako onartutako 90.000 euroekin ezin dutelako "ezer egin". Horren adibide jarri zuen Gellao eta Apotzaga arteko bidea konponduz gero, diru barik gel-

dituko direla. Horrez gain, kritika gogorra egin zion alkateari bidegorriaren lanen zati bat Izarturen bidez finantzatuko duelako. "Bidegorria autobidearen kalteak konpentsatzeko da, eta horregatik gastu guztia Aldundiak ordaindu beharko luke".

## Agintarieiek inauguru zuten Kulunka

Astelehenean egin zuten Kulunka haurreskolaren inaugurazio ofiziala. Ekitaldian, Hezkuntza sailburu Tontxu Campos, Partzuergoko gerente Maite Larrañaga eta Partzuergoko Gipuzkoako koordinatzaile Xabier Otaegi izan ziren, besteak beste. Irailaren 6an zabaldu zuten Partzuergoko haurreskola Eskoriatzan.



ARRITXU BARRUSO

#### > INGURUMENA

### Onbide.org elkarreka salatu du bidegorriaren proiektuaren gainean zerbait ezkutatu dutela

Onbide.org elkartekoek jakinarazi dute Udalak onartu berri duen bidegorriaren proiektuaren gainean zalantza handiak dituztela. Hain zuzen ere, aditzera eman dute 1998an Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ingurumen deklarazioa onartu zuela, eta han azaltzen zela bidegorria autobidearen kalteen neurri konpentsatzialea izango zela; lanok Aldundiko Errepide Sailak egin beharko zituela; eta proiektua urtebeteko epean aurkeztu beharko zela.

Onbide.org elkarreka gaineratu du sasoi hartan Antton Jaime zela Aldundiko Errepide Saileko zuzendaria; eta bederatzi urte pasata, Udalak ordainduta bidegorrien proiektua Jaimek berak zuzentzen duen Injelan enpresak idatzi duela.

Elkarrearen kezka da proiektu horren zati bat Udalak ordaindu behar izatea, Aldundiak bere gain hartu beharrean. Bukatze-ko, aditzera eman dute Aldundiaren bitartez jakin dutela jendau-rrean jarri berri duten proiektua 2005a ezkerro idatzita dagoela.

**DE LA TORRE**  
igeltserotza

*Erreformak orokorrean  
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

Frutería MARTÍN Frutateria

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behe Tel. 652 77 53 58

**Villar**  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA



ETXEBIZITZAK Eguzki auzoko eraikinean egingo dute inbertsiorik handiena.

A.I.

**AURREKONTUAK > UDALAREN AURREKONTUAK EGUBAKOITZEAN ONARTU ZITUZTEN**

# Ia zortzi milioi euroko aurrekontu bateratua onartu du Udalak

Udalaren eta Antzuola Udal Etxegintzaren aurrekontu bateratua da 7.968.859 euro; 5.855.306 euro bideratuko dituzte inbertsioetara

#### AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Aurreko egubakoitzean onartu zituen 2007ko udal aurrekontuak udalbatzak, EAJ-EAKO zinegotziengatik babesarekin. Gainerako alderdietako ordezkarriak ez ziren egon osoko bilkuran. Udalaren aurrekontua aurtengo da 2.668.806 euro. Antzuola Udal Etxegintzaren aurrekontua gehitu behar diogu kopuru horri: 5.913.578 euro, hain zuzen ere. Hortaz, aurrekontu bateratua da 7.968.859 euro. Iazkoarekin alde-ratuta, aurrekontu handia du Udalak. Iaz, aurrekontu bateratua izan zen 4.585.283 euro.

#### INBERTSIO TXIKIAK UDALAK

Udalaren aurrekontuetan inber-tso txikia aurrez ikusten da. 25.030 euro bakarrik daude inber-tsioetara bideratuta. Inbertsioetan, aipagarriena da 11.130 euro bideratuko dituztela Bizkalatzako pistarendako. Kirol batzordeak hartuko du inbertsioen beste zati handi bat; izan ere, 8.000 euroko inbertsioa aurrez ikusten dute futbol zelaian hainbat lan egiteko; bestea beste, aldagelak txukundu eta aterpea egiteko.

#### INBERTSIOAK

Antzuola Udal Etxegintzaren bitartez bideratuko dituzte auren ere inbertsio handienak. 5.913.578,64 euroko aurrekontua du eta ia guztia (5.830.275,88 euro, hain zuzen ere) inbertsioetarako izango dira.

Inbertsio handiena egingo dute Eguzki auzoan eraikitzentzihardutu eraikinean, garajeak

ere kontuan hartuta. 3.410.620,52 euro, hain zuzen ere, bideratuko dituzte eraikin horretara. 20 etxe-bizitza tasatu eraikitzentzihardutu eraikin handienak. 5.913.578,64 euroko aurrekontua du eta ia guztia (5.830.275,88 euro, hain zuzen ere) inbertsioetarako izango dira.

Bigarren inbertsiorik handiena egingo dute Kultura Etxe-Gizarte Etxean, Sagasti auzoan: 1.945.377,96 euro. Alde zaharreko azpiegiturak berritu eta hiritaratzeko, bestalde, 320.681,45 euro erabiliko dituzte. Azkenik, Sagasti parkera 153.595,95 euro bideratuko dituzte.

#### 2007ko Udalaren aurrekontuak

	AURREKONTUA	INBERTSIOA
Zor publikoa	118.972 €	-
Gobernu organoak	48.919 €	-
Administrazio orokorra	429.253 €	-
Gizarte Segurantza eta Sustapena	318.001 €	2.500 €
Hezkuntza	81.256 €	-
Etxebizitza eta Hirigintza	1.085.631 €	3.000 €
Komunitate Ongizatea	146.735 €	-
Kultura	182.840 €	-
Kirolak	61.751 €	8.000 €
Liburutegia	17.420 €	-
Euskara	92.889 €	-
Gazteria	34.840 €	-
Nekazaritza	50.295 €	11.530 €
<b>Guztira</b>	<b>2.668.806,67 €</b>	<b>25.030 €</b>

Iturria: Antzuolako Udala

#### ERRETIRATUAK > BATZAR OROKORRA

## Batzordekide berriak aukeratuko dituzte

Apirilaren 14an, zapatua, egingo du urteko batzar orokorra Erretiratuen Elkarteak

#### AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Aste Santu ondoren, apirilaren 14an, egingo du urteko batzar orokorra Antzuolako Erretiratuen Elkarteak. 18:00etarako da hitzordua erretratuek Zurrago plazan duten egoitzan. Zuzendaritza batzordeko kideek bazkide guztieei egin nahi diete deialdia batzar orokorrean parte har dezaten.

#### GAI ZERRENDA

Honakoa izango da batzarreko gai zerrenda: 2006. urteko akta irakurriko dute lehendabizi; ondoren, 2006. urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko dute; 2006. urtean egin dituzten ekin-tzak azalduko dituzte; gero, 2007. rako ekintzen proposamena egingo dute; zuzendaritza batzordeko kideen erdiak aukeratuko dituzte; eta, azkenik, galderak egiteko aukera egongo da.

Zuzendaritza batzordeko hiru kidek lagako dute kargua aurren: Andoni Azkarate presidenteak, Salvador Olabarria idazkariak eta Miren Arangurenak. Karmele San Sebastian diruzainari ere kargua lagatzea egokitzentziz zitzzion, baina, haren borondatez, lan horretan jarraituko du.

Hortaz, hiru kide aukeratu beharko dituzte batzar orokorrean, eta zuzendaritza batzorde berria osatutakoan, eurek erabakiko dute zein izango den presidente.

#### BAZKIDE BERRIAK

Azkeneko hilabeteotan, Erretiratuen Elkartearen erronka izan da bazkide berriak egitea; eta horretan jarraituko dute; erretiratu guztiak animatu nahi dituzte bazkide egin daitezen.

#### > ASTE SANTUA

## Oporretan dauden neska-mutikoek hainbat ekitaldi izango dituzte datorren astean

Bi asteko oporraldia dute neska-mutikoek. Ez dute, baina, aspertzeko denborarik izango. Izen ere, datorren astean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte. Eguaztenean, hilak 11, 11:00etarako 13:00etara jolasen tailerrak izango dituzte eskolako jolastokian. Munduko jolas tradizionalak ezagutzeko aukera izango dute, 8 eta 12 urte bitartekoek. Egun berean, 18:00etan, Apika taldearen eskutik ipuin kontaketa saioa izango da, Udal Liburutegian. Ondoren, 19:00etan, Patxiku Txerren ipuin sariketan aukeratutako ipuinak eta horiek osatutako liburua aurkeztuko dituzte. Hilaren 14an, azkenik, 11:00etan, eskolako gimnasioan, Euskaraok saioa izango dute 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek.

#### > ERRETIRATUAK

## Zarautzera irteera egingo dute apirilaren 12an, elurragatik bertan behera laga eta gero

Martxoaren 22rako antolatuta zeukaten erretiratuek Zarautzera irteera. Elurragatik, baina, bertan behera geratu zen eta apirilaren 12an, eguna, egingo dute. Arratsaldeko irteera izango da; 14:30ean irtengo dira eta Zarauzko alde zaharra bisitatuko dute. Ondoren, merienda egingo dute Loiolako hotel baten. Martxoaren 22ko irteerarako izena emanda zutenek parte hartu ahal izango dute. Ez dago berriro izena eman beharrik.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide frogatzen duen prestatzea nahi duzu? **21** urte baino gehiago edo **2** urtetako lan esperientzia baduzu

Etor zaitez **IEFPS ARETXABAleta GLHBI** eta informa zaitez

Etxebarri auzoa, z/g  
20550 ARETXABAleta (Gipuzkoa)  
Tels.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55

E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com



**bere ustez**

Maria Elena Eztenaga

**Basoa gure etxea da, zaindu deigun**

**B**aso hitzak, zuhaitzak estalitako muinoen irudia dakarkigu gogora, animalia bizidunez josita daudenak. Irudi hori nahi-kor gertu dago gutxienez due-la ez asko Euskal Herriko paisaien.

Egungo paisaiaren erre-alitatea oso bestelakoa da. Baso-politikak egurrauen ekoizpenean oinarritu dira, eta horiek erro-erotik alda-tu dute gure inguruko eko-sistema eta paisaia.

Zer dela eta sarrera hau? Denok dakigun moduan opo-

**"Oporrak gertu daude eta mendira joateko egun aproposak izaten dira horiek"**

rrak gertu daude eta mendi-ra joateko egun aproposak izaten dira horiek.

Egia da basoa berresku-ratzea eta bere kontserba-zioa bermatzea Herri Admi-nistrazioaren eginkizuna dela, baina gure eskuetan dauden neurriak ere kon-tuan harti behar ditugu. Kontserbazio on bat lortze-ko ez kutsatzea ezinbeste-ko da. Basoak garbi eta txu-kun utzi behar ditugu. Ezin-besteko da.

Horrela jokatzea ez da gainera oso neketsua. Gure etxe-a garbi daukagun moduan garbi eduki behar ditugu gure mendi eta baso-ak. Serioak izan gaitezen gure ingurumenarekin. Azken batean gure etxea ere bada-eta.

**((112))  
SOS DEIAK**

**HIRIGINTZA KONPONKETAK > ESKOLATIK ESPALOIRAKO ESKAILERAK ERE LASTER IPINIKO DITUZTE**

## San Roke kaleko galtzada-harriak eta arketak konpontzen ari dira

Lanok 10.000 euroko aurrekontua dute eta zazpi bat lanegunetan amaitzea espero du udal aparejadore Alberto Olalde

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**

San Roke kalean aspaldian solte zeuden galtzada-harriak kon-pontzen ari dira. Bi langile ari dira behar horretan. Hain zuen, langile haien zeregina da solte edo kolokan dauden galtzada-harriak lokalizatu, bere lekutik atera, zuloa eta harria bera txukundu eta berriz ere bere lekuak kokatzea.

"San Roke kaleko arketak ere aldatu egingo dituzte, asko oso hondatuta daude-eta", adierazi dio GOIENKARIARI udal aparejadore Alberto Olalde. "Dozena bat arketa daude, eta guztiak aldatuko dira". Maala parkera-ko sarreran eta San Roke kaleko beheko aldean zebra-bide moduko batzuk jarriko direla ere esan du Olalde: "Hareharri egingo dira eta pare bat metroko zabalera izango dute bi zebra-bideek. Lanok 10.000 euroko aurrekontua dute".

Mantentze-lan horiek egiteko langileek zazpi bat lanegun beharko dituztela iritzio dio Olalde. Martitzenean hasi ziren beharrean, eta, tartean Aste Santuko jaiegunak daudela kontuan



LANAK San Roke kaleko mantentze-lanek 10.000 euroko aurrekontua dute. L.Z.

hartuta, hil amaierarako lanok eginda egotea aurreikusten du udal aparejadoreak.

**ESPALOIRAKO ESKAILERAK**

Herri Eskolatik Espaloira jaitsko eskailerak ere jartzeke dau-de aspalditik.

Ur-ihesa egon zen leku horre-tan duela hilabete batzuk eta konponketa lanak egiteko eskail-lerak zulatu egin zituzten. Aspal-di iritsi ziren eskailera berriak, baina okerra egon zen eta mate-rialia desegokia bidali zuten.

Udal aparejadore Alberto Olalderen hitzetan, Aste Santu ostean iritsiko dira eskailera berriak Elgetara: "Berriak eka-ri eta oker bidalitakoak era-mango dituzte", esan du Olalde. Eskailera berriak datorren mar-titzenean iristea espero du Olal-dek eta egun horretan bertan nahiko luke ipintzen hastea.

"Kolorea ez da guztiz berdi-na izango, baina denbora eta erabilpenarekin hori konpon-duko delakoan nago", esan du udal aparejadoreak.



JOSETXO ARANTZABAL

## Zuhaitz Eguna bustia izan zen

Eguraldia ez zuten lagun izan, baina talde txoa bildu zen domeka goizean Zuhaitz Eguna egiteko. Herriko Plazatik abiatu ziren 10:00etan eta Egoarbitza inguruan 30 bat pago landatu zituzten. Umeak ez ezik gurasoak ere animatu ziren Zuhaitz Egunean parte hartzen. Pagoak landatu, hamarretakoa egin eta herrira itzuli ziren.

**OSPAKIZUNAK**

## Prozesioa egingo dute barikuau, 18:00etan

L.Z. > ELGETA

Aste Santuko eta Pazkoko ospakizunak prest dituzte Elgetako Andre Mariaren Jasokundeko Parrokiian.

Bariku Santuan egingo dituzte ospakizun ikusgarri-enak. 10:00etan Gurutze Bidea egingo dute Elgetako fededu-nek eta 18:00etan, berriz, Jesu-sen Heriotzaren ospakizuna eta prozesioa.

**PAZKO-DOMEKAN, 12:00ETAN**

Eguen Santuan, 18:00etan, Azken Afariko ospakizuna egingo dute. Zapatauan, 22:00etan, Pazko-gaubeilla eta ondoren txokolate-jana egin-ko dituzte.

Pazko-domekako meza nagusia 12:00etan izango da.

> UDALA

## Gaur egingo dute Udaleko batzar orokorra, 20:30ean

Gaur, eguztena, egingo dute Elgetako udaletxean batzar orokorra.

Gobernu taldeak martxoaren 29rako deitu zuen batzarra, baina bertan behera gelditu zen. Aralarrek adierazi zuen ez zela legezko epea betetzen deialdia zabaldu eta batzarra egiteko egunaren artean.

Sei puntu osatzen dute gaurko batzarreko gai zerrenda, tartean 2006ko aurrekon-tuaren kreditu aldaketak.

> ELKARTASUNA

## Familiak behar dira udan Saharako umeak etxe-an hartzen

Aurten ere Saharako umeak etxe-an hartzen Oporrak Bakean programa antolatu du Bergarako Bubisher elkar-tasun taldeak, eta Elgetako Udalak bat egin du proiektu horrekin. Parte hartzenk integra dutenek Udalera jo behar dute, Gizarte Zerbitzuetara. Apiril bukaera arte dago zaba-lik izena emateko epea. Udan etorriko dira saharar umeak eta gure artean pasatuko dituzte uztaila eta abuztua.

> HAUTESKUNDEAK  
**Elgetako Abertzale Sozialistak sinadura bilketa abiari-azi du**

Maiatzeko hauteskundeetara aurkeztu nahi du Elgetako Abertzale Sozialistak, eta sinadura bilketa abiari-azi du. Elgetarren sostengua eska-tzen du horrela.

Udaletxean bilduko dituzte sinadurak eta egun eta ordutegi konkretuak jarri dituzte horretarako: gaur, eguztena, eta hilaren 16an eta 17an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara; hilaren 11n eta 12an, 12:00etatik 13:00etara; eta hilaren 14an 11:00etatik 13:00etara.

> INTERNET

## Apirilean bi ikastaro egingo dituzte Elgetako KZgunean

Aitor Madrid KZguneko ardu-raduna hilaren 11n eta 25ean etorriko da tutoretz egitera.

Egun horietarako bi min-tegi antolatu dituzte: apirila-ren 11n Elikadura segurtasuna izeneko mintegia egingo dute, euskaraz, 18:00etatik 19:00etara. Apirilaren 25ean, berriz, Zure egunkaria iraku-ri izeneko egingo dute, 16:00etatik 17:00etara; hora ere euskaraz. Bietarako leku libre-ak gelditzen dira oraindik ere.



ORDEZKARIAK Kepa Lizarralde Zalgokoa, Kepa Uribarren Oletakoa eta Juan Antonio Aretxaga Untzillakoa, herenengun.

UDALA > MARTXOKO OSOKO BILKURA

## Hainbat dirulaguntza onartu zituzten osokoan

Uribarri eta Arexola bitarteko bidea konpontzea onartu zuen udalbatzak

batzarrean. Hain zuzen ere, kultura elkarteen artean 8.500 euro banatuko ditu Udalak eta kirol taldeen artean, berriz, 4.600 euro. Hurrengo batzordean zehaztuko dute kopuru horietatik zenbat dagokion elkartea bakoitzari.

Dirulaguntzekin jarraituz, euskararen aldeko zenbait ekinmen diruz lagunduko dituela ere onartu zuen udalbatzak: Nafarroa Oinez, Herri Urrats eta Araba Euskaraz ekimenei 200 euro emango dizkie; Euskararen Aldeko Kontseiluari, berriz, 600 euro; Arabako Berri Txapelketarendako bideratuko ditu 1.500 euro; eta, bukatzezko, Korrikaren kilometro bat erosi dutela jakinera zuten (300 euro).

Azkenik, herriko guraso elkarteari eta euskara elkarteari (Txirritola), bakoitzari 2.200 euro emateko proposamenari ere baiezkoa eman zioten.

ABIADURA HANDIKO TRENA > HERRI GALDEKETA

# Auzo alkateak gertu daude herri galdeketa gauza dadin laguntzeko

Aramaiaor guztiak galdeketa parte hartzeko eskubide bera izan behar dutela pentsatzen dute, eta horretarako erraztasunak eman behar direla

UBANE MADERA > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren gainean Aramaion herri galdeketa egiteko eskaera orain dela bost hilabete egin zuen galdeketa hori bultzatzen dabilen taldeak. Ia 700 sinadura aurkeztu zituzten aza-roan udaletxeen eskaera babes-teko. Mozi moduan osoko bilkuriari aurkeztu, eta hark onartu egin zuen Aramaion herri galde-keta egitea.

AHALEGIN GUZTIAK GAUZA DADIN

Baina galdeketa jasaten ari duen atzerapenaren aurrean, ekimen hori bultzatzen dabilen taldeak jakinarazi nahi du euren aldetik ahalegin guztiak egiten dabilzala herri galdeketa gauza dadin.

Horren adibide moduan, herri galdeketa kiko adostasuna azaldu zuten auzo alkateeta-ko hiru elkartu egin dira: Juan Antonio Aretxaga, Aramaioen mendebaldean dagoen Untzillako auzo alkatea; Kepa Lizarralde, herri erdialde inguruan dagoen Zalgo auzoko alkatea eta Kepa

Uribarren, Aramaioen eki-ekialdean dagoen Oletako Batzar Administratiboko kidea. Hiru ordezkari horiek honakoa helarazi nahi diete herrikideei:

"Ia 700 sinadurekin batera, 12 auzo alkateok gure ados-tasuna azaldu genuen herri galdeketa egiteko. Gure eginbeharra da auzokideei lana erraztea, eurei laguntzea eta ondorioz, herri galdeketaaren aurrean bozka dezatela erraztea. AHTren kontrako elkarlanarekin egin-

dako lana saiakera horren barruan dago.

Hori horrela, eta Oletaren eta beste zenbait auzoren distantzia kontuan hartuta, hautestontziak auzoetan ipintzea proposatu genuen. Auzo alkate gehienak (bi abstentu egin ziren, baina herri galdeketa egitea onartuz gero, lagunduko zutela esan zuten) udal batzordeari idatziz aurkeztu genion gure eskaria. Gure helburua honakoa da: herritar guztiekin aukera bera izan dezatela herri galdeketa parte hartzeko, bai auzoetakoek, baita Ibarrakoek ere. Eta kontuan hartuta herri galdeketa egitea borondatzeko lana dela, eskatzen dugu aukera bera herritar guztiendako".

UDAL HAUTESKUNDEEKKIN BATERA

## Herri galdeketa egiteko egun egokiena: maiatzaren 27a, udal hauteskundeekin batera

Herri galdeketa laguntzako borondatea erakustea gainera, galdeketa udal hauteskundeekin batera egitea egokiena dela uste dute: "Logikoena da. Aprobetxatzen beste galdeketa bat egin behar dela AHTren gainekoa egun berean egitea. Ez litzateke logikoa izango, hauteskundeak hor daudela, herritarrei bi deialdi egitea, bata hauteskundeetarako eta bestea trenaren gainean bozkatzeko. Azken batean, udal hauteskundeetan ere gauza bera egiten dute: Udalerako ordezkarientzat botoa emateaz gainera, Aldundikoengatik ere eman behar dugu botoa".

KULTURA > SAN MARTIN JAIAK

## Jaietarako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Maiatzaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira lanak, udaletxeen bertan

U.M. > ARAMAIO

San Martin jaiak ilustratzeko kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Edozein aramaioarrek parte hartu ahal izango du lehiaketan. Hori bai, bakoitzak, asko jota, bi lan aurkeztu ahal izango ditu eta, gainera, lan orijinalak izan beharko dute.

TEKNIKA LIBREA

Kartelean idatzi beharrekoa ere finkatu du Udalak: *San Martin Jaiak. Ekainak 29, 30 eta uztailak 1 eta 2*.

Hortik aurrera, kartela egiteko erabili beharreko teknika norberak nahi duena izango da, librea. Lanak baloratzeko orduan, berriz, bi maila bereiz-

tuko dituzte: batetik, 16 urtetik beherakoak eta bestetik, 16 urtetik gorakoak.

Hala, sariak bi maila horien arabera zehaztu dituzte: 16 urtetik beherakoendako 60 euroko txartela Elkar-en saltokietan gastatzeko. Eta 16 urtetik gorakoendako, berriz, 150 euroko txartela Elkar-en saltokietan gastatzeko.

AURKEZTEKO EPEA

Lanak entregatzeko epeari dagokionez, hilabeteko epea emango du Udalak. Hala, maiatzaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak, udaletxeen bertan, Bizente Goikoetxea plazan.

> POLITIKA

## Apirilaren 20ra arte sinadurak batuko ditu ezker abertzaleak, udaletxeen

Aramaioko ezker abertzalea sinadurak batzen hasi da gaur, eguzteten, udaletxeen. Hala, udalerriko "ezkertiar eta abertzale guztiei" egin diete dei "gaurtik aurrera apirilaren 20ra arte udaletxea zabalki dagoen denboran sinadura ematera" joan daitezzen.

Hiru arrazoirengatik eskatzen dute herrikideen sinadura: "bake prozesuaren alde, Euskal Herriaren ilegalizazioa gainditzeko eta ezker abertzalea presente egon dadin datozen udal eta foru haueskundeetan".

Hauxe ere gaineratu nahi izan du ezker abertzaleak: "Momen-tua da guztiok batera aurrera egiteko eta behingoz gatzazka honi irtenbidea eman eta guztiok parte hartu ahal dezagun aukera ber-dintasuna gauzatzeko".

FUTBOLA &gt; REALAREN GAZTE MAILAKO TXAPELKETA

# Realeko gazte mailako torneoak hiru partidu ekarriko ditu gurera

Ajax, Rosenborg, Real Madril, Bartzelona, Vila-real eta Osasuna dira txapelketara gonbidatu dituzten taldeak; horiekin batera jokatuko dute Realak eta Gipuzkoako selekzioak

**XABIER URTZELAI** > BERGARA  
Realak Aste Santuan egiten duen gazte mailako 13. torneoa jokatuko dute aurten, eta ligaxkako 12 norgaehiagokatik hiru partidu ekarriko dituzte ibarreko futbol zelaietara.

Vila-real izan da txapelketa azken orduko gonbidatua, Athleticek ezekoa eman eta gero hutsunea betetzeko talde aukeratua. Ajax eta Rosenborg taldeei dagokienez, holandarrek ondo ezagutzen dute Realaren txapelketa, 2004an txapeldunorde izan ziren-eta -bost ediziota jokatu dute-. Rosenborg taldeko gazteak, berriz, lehenengo izango dira txapelketa horretan.

**GIPUZKOA ETA REALA, ETEXAN**  
Reala eta Gipuzkoako selekzioa izango dira etxean jokatuko duten taldeak. Aipatzeko da Athleti-



HARROBIA LANTZEKO Horretarako balio dute txapelketa horiek; argazkian, Prieto eta Riesgo, taldekideekin.

x.u.

cekin batera Antiguoko jokalariak ere ez dutela Gipuzkoako selekzioan esku hartuko, talde horrek ez du-eta Realarekin hitzarmenik. Gainera, aspaldian klub horien arteko harremanak ozipinduta daude.

## Ibarrean jokatuko dituzten partiduak

TALDEAK	EGUNA	TOKIA	ORDUA
Gipuzkoako-Osasuna	egubakoitza 6	Agorrosin	17:00
Gipuzkoako-R.Madril	zapatua 7	Atxabalepe	17:00
Realak-Ajax	domeka 8	Azkoagain	17:00

> URPEKARITZA  
**Apirlaren 13a da ikastaroan izena emateko azken eguna**

Aste Santua igaro eta gero hasiko dute AUKEAK antolatu duen urpekaritza ikastaroa, hilaren 16an, astelehenan. Oraindik badago ikastaroan izena emateko aukera; hilaren 13ra arte egongo da izenemate epea zabalik.

Ikastaroak arlo teorikoa eta praktikoa landuko ditu. Praktika horiek Musakolako igerilekuaren egingo dituzte, baina baita itsaso zabalean ere, Getarian. Ikastaro horrek nazioarteko urpekaritza titulua emango dute. Ikastaroan parte hartzeko 340 euro ordaindu behar dira. 627 93 03 30 telefono zenbakira deitu.

> ZIKLISMOA  
**Xabier Arantzeta lehenengo, Urretxuko lasterketan**

Antzuolako kadete mailako txirrindularia lehenengo helmugaratu zen zapatuan Urretxun egin zuten lasterketan. Ez da Arantzetaren denboraldiko lehenengo garaipeña, Beasainen ere podiumeko lehenengo postura igo zen-eta. Bestalde, 23 urtez azpiko mailan Gurutz Larrea antzuolarra bosgarren sailkatu zen Zornotzan egin zuten Lehendakari Txapelketan.

Oraingo asteburuan 23 urtez azpikoek ez dute atsedenik izango. Bi lasterketa egongo dira domekan, Beasainen eta Ororian (Nafarroa).

> ZIKLISMOA  
**Hirugarren urtez egingo dute 'Tropela' lehiaketa**

Aurten ere aukera egongo da txirrindularitzaren gaineko posturak euskaraz egiteko, [www.tropela.net](http://www.tropela.net) webguneak hirugarren denboraldiari ekingo dio-eta.

Hala, *Tropela*-ko lagunek Euskal Herriko Itzuliarekin hasiko dute urtea, eta aurrerago etorriko dira gainontzeko lasterketak ere. Gainera, aurten hainbat berritisun dakartzate. Batetik, datu historikoak ikusi ahal izango dira, aurreko urteotan egindako apustuak, hain zuzen ere. Horrekin batera, sakelako telefonoan etapen emaitzak jaso ahal izango ditugu.



GOIENKARIA

## FUTBOLIN TXAPELKETA



[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)

943 76 42 31 / 652 77 60 51

Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)

**Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equus – Udal – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Onati:** Arrano – Ongi – Otamendi



## III. MAGIA MOSTRA

2007ko MAIATZAK 4, 5 eta 6  
ELGETAKO ESPALOA KAFE ANTZOKIA

### > URTEURRENA

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Arrasateko gaztetxeak > 26

### > MAGIA MOSTRA

Maiatzaren 4tik 6ra bitartean III. ekitaldia Elgetako Espaloian > 26

### > JUNKAL

#### ARRUTI

Bakerako Lankidetza Batzarra GKEn dabil bergararra. Iparraldeko herrien sensibilizazio eta garapen hezkuntza proiektuen ardura du > 27



Iñaki Alberdi eta Esmeralda Gonzalez debagoiendarrak, Bartzelonako La Agradecida kultura elkartean

#### EDU MENDIBIL > BERGARA

Bartzelonako Gracia auzoan 20 urte pasatxo daramate Iñaki Alberdi bergararrak eta Esmeralda Gonzalez arrasatearrak. Auzoko beste hainbat lagunekin batera La Agradecida kultura elkarreta sortu berri dute. Argazkilariak, pintoreak, diseinugileak, grafiti egileak eta beste hainbat artista biltzen dira bertan. Esmeralda Gonzalez arte aretoko arduradunak azpimarratzen duen moduan, "asoiazionismoaren sorlekua da Gracia, oso auzo bizia, eta urte hauetan guztietan hemen bizi garen ema eman digun guztia eskertzeko La Agradecida izena jarri genion elkarteari. Katalanak eta euskaldunak eta, beste zenbait herrialdetako jendea ere ibiltzen da elkartean".

#### ZUBI LANA

Bartzelonaren eta Euskal Herriaren arteko zubi lana egiteko asmoz, euskal margolaritzaren gaineko zikloari ekin diote orain. Duncan Dhu taldeko kide izandako Diego Vasalloren margo erakusketa hasiera emandio zikloari eta Iñaki Alberdik berak hartu dio lekukoa. Joan den egunean inauguratu zuten artista bergararraren erakusketa. *Zen bat zen II* izenburuean, hamai-ka koadro jarri ditu ikusgai, apirilaren 24ra bitartean".

Alberdik berak adierazi digunez, iaz Sabadellgo Impaktes Visuals galerian egindako era-kusketaren jarraipena da Gracia zabaldutakoa: "Gabonetik hona egindako koadroak dira: marinak, loreen ilustrazio antzekoak eta natura hilak. Natura hiletan lumak marraztu ditut; izan ere, azken bi urte hauetan arku tiroketa egiten dut". Hain zuzen ere, *zen* artea eta Euskal Herria batu nahi izan ditu egunrrex egindako koadroetan: "*Zen bat zen* izenburuarekin hitz jokoa egin nahi izan dut. Zenbatzen, kontatzen... Herrigel-en *Zen en el arte del tiro con arco* liburu ezaguna oinarria izan da titulua jarretzko; arku tiroketa egiten dugunontzat biblia moduko liburua da hori". Besteak beste, *Lekeitxio, Hezur loreak* eta *Azken baporak* izenburuko akrilikoak dira, 80x100 zentimetrokoak gehienak.

# Graciako artistak



LA AGRADECIDA Goian, Iñaki Alberdi, Gracia auzoko aretoan ikusgai jarri duen koadroetako baten ondoan. Behean, aretoko bi argazki.

IKER AMAS

#### ARTE ULERGARRIA

Egueneko inaugurazioan lagun eta ezagun mordoa bildu zen La Agradecida aretoan (Asturias, 85). Alberdi pozik dago erakusketarekin: "Sabadellen egindako ondo joan zen, zertxobait saldu genuen, eta ea orain, etxean jokatzen dugula-eta... Ikusi behar. Bartzelona moduko hiri batean, horrenbesteko eskaintza eta konpetentziarekin, zaila da lekua egitea. Dena dela, badabil jendea etortzen, eta baikorrak

gara". Ehungintzako estanpazioak egiten ibilitako da Alberdi, eta, ingurukoek animatuta, azken hiru urteetan serioago heldu dio berriz ere pintatzeari. Publiko zabala bat zuzendutako pintura defendatzen du: "Edozein ikusleren arreta bereganatzea da nire asmoa. Ez diet era-kusketa hau adituei zuzendu nahi izan. Abstrakziotik eta eliengandik ihesi, soiltasunez eta apaltasunez, adin askotarikoa ikusleei gauzak erraz azaltzea

bilatu dut". Era berean, etorkizunean, jaioterrian, Bergaran, erakusketaren bat egin nahi due la diosku Alberdik.

#### EUSKAL ZIKLOA

Esmeralda Gonzalezaren arabera, komunikabideek arreta berezia eskaini diote La Agradecida aretoari: "Euskal artearenak era-kuskleihoa izatea eta, aldi berean, hemen, Katalunian, egiten den artea Euskal Herrikoan zabaltzea da gure helburua. Orain, euskal

zikloari ekin diogu eta euskal artista askok agertu dute interesa, tartean izen handikoek: Carlos Inda, Asier Lazpiur, Koldo Alberdi, Ricardo Iriarte, Andoni Gartzia eta beste hainbatetan. 2008ko lehen hiruhilekora arte programazioa osatuta dago. Artistek interes handia azaldu dute, eta luze jo dezake zikloak...". Orain, Aste Santuan, Bartzelona aldera joanez gero, euskal artisten txokoa topatuko duzue han.

ARRASATE &gt; GAZTETXEAREN '11+5' URTEURRENA

# 'Ipurzuluen bizirik' da urteurrenaren lelo kritikoa

Mendi irteera, pilota txapelketa, berbaldiak, kontzertuak eta udaberri jaia egingo dituzte

Gaztetxeko 'Trikili-Trakala' fantzinearen jaia ere egingo dute, eta zenbaki berezia kaleratuko dute

#### IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak 11+5 urteurrena ospatuko du, *'Ipurzuluen bizirik'* lelopean. Etzi, egubakoitza, hasiko dituzte ekitaldiak eta hilaren 28ra bitartean iraungo du egitarauak.

AGAKOko (gazte batzarra) kideek jakinarazi digute Udalak jarri zuela gaztetxea baztertuta dagoen zulo baten; horregatik jarri diotela lelo hori urteurrenari.

#### TRIKILI-TRAKALA JAIA


Etzi, egubakoitza, Last Rebels, Aggressive Combat eta The 5 Twisters arrasatearrek eta Skarmiento galiziarrek egingo dute kontzertua, 22:30ean. Horren ostean, Aste Santuko oporretan etenaldia egingo dute, baina hilaren 13an murala egiteko batuko dira.

Hala, biharamunean, hilaren 14an, Trikili-Trakala jaia egingo dute. AGAKOko kaleratzen duen

fanzinea da, eta hilabetekariak urtebetegi egin du. Hala, hori ospatzeko, zenbaki berezia kaleratuko dute. Haren egileek jakinarazi digute fantzinea elkarritzetaz josita etorriko dela, "orain arte ez bezala". Zenbaki bakoitzeko 100 bat ale kaleratzen dituzte; orain goan, berriz, 200 bat.

Fanzineak oso harrera ona du, eta gero eta jende gehiagok idatzi eta laguntzen du. "Herriko hainbat gauza eta ohiturari kritika egiten saiatzen gara, eta oso pozik gaude arrasatearren artean lortu duen harrerarekin". Horrekin batera, gogoratu zuten *trikili-trakala@gaztesarea.net* epostaren bitartez edonor jar daikeela haikein harremanetan.

Fanzinearen jaian, Never Surrender talde arrasatearrak kontzertua egingo du. Domekarrako, berriz, musika improvisaioa egiteko deialdia egin dute.



MUSIKA EMANALDIAK Aggressive Combat talde arrasatearrak (argazkian) ere ekitaldietan esku hartuko du.

IKER BARANDIARAN.

Bestalde, hilaren 17an, 18an, 24an eta 25ean film emanaldiak egingo dituzte, 18:00etan. Oraindik ez ditzigute filmen izenak jakinarazi, baina badakigu film laburrak ere izango direla.

Kirola ere egingo dute gaztetxeok. Hala, hilaren 20an pilota txapelketa egingo dute Zaldia-

barren. Horretarako, hilaren 18a aurretik izena eman beharko da Iratin, Bionan, Ekaitzen edo gaztetxean. Hilaren 22an, berriz, mendi irteera egingo dute. 09:30erako egin dute hitzordua, eta 14:00etan bueltan izango dira Herriko Plaza, mokadutxo hartu eta "kalea berreskuratzeko".

#### HAINBAT BERBALDI

Bestalde, hilaren 14an Panamako Kuna Yala herri indigena berbagai izango dute; eta 27an, Enrike Lopez euskal desobedientziaren gainean arituko da.

Horrez gain, hilaren 21ean, Euskal Herria Zuzenean lehiaketako finalerdia egingo dute.

## Maite Frankok ipuinak kontatuko ditu hilaren 17an Santa Marinan

Apirilaren 23a Liburuaren Eguna dela-eta, Arrasateko Udal Bibliotekak hainbat ekitaldi antolatu ditu, Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin.

Horietako lehena hilaren 17an egingo dute: Maite Franko ipuin kontalarriak (argazkian) saioa egingo du Santa Marina auzoko liburutegian, 18:00etan. Saio hori 4 eta 6 urte bitarteko umeendako izango da.

Horrez gain, Literatura Solasaldien barruan, hilaren 16an Rikardo Arregiren *Kartografia* izango dute berbagai, euskaraz; eta hilaren 17an, berriz, Sergey Dovlatovenen *El compromiso* gaztelera. Biak ala biak Kulturan izango dira, 18:30ean.



GOIENKARIA

#### > HITZALDIA

### Imanol Zumalderen hitzaldia apirilaren 18an, 'Zinema eta historia' zikloaren barruan

Bergarako Udal Artxiboak antolatutako *Zinema eta historiaren arteko harremanak* zikloaren barruan, Imanol Zumalde irakasleak Espainiako II. Errepublika hitzaldia egingo du Miguel Altuna institutuko aretoan, 18:30ean. Hainbat filmetako irudiek lagundutako hitzaldia izango da.

#### > ANTZERKIA

### Elgetako Magia Mostraren III. ekitaldia maiatzaren 4tik 6ra bitartean ospatuko da

Elgetako Magia Mostra maiatzaren 4an hasiko da, Roberto Giobbi kartomago suitzarrak egingo duen emanaldiarekin. Zapatuan, maiatzaren 5ean, Luis Manuel, Nacho Diago, Murphy, Raul Alegría eta Yunkek saioa egingo dute eta azken egunean, ohikoa bihurtu denez, Elgetako kaleetan hainbat ikuskizun izango dira.

#### > MUSIKA

### Ganbara Txiki abesbatzak bi kontzertu emango ditu hurrengo astean Katalunian

Oñatiako Ganbara Txiki abesbatzak bi kontzertu emango ditu Katalunian, Pazko Astean. Hurrengo martxenean, hilaren 10ean, Capelladesen, Bartzelonan, egingo du emanaldia Aitor Biainek zuendutako taldeak. Egubakoitzean, hilaren 13an, Santa Coloma de Queraltense, Tarragonan, abestuko dute.

Junkal Arruti > Boluntario ibili da

# "Lekuek mugatu egiten gaituzte, eskubideak emanez edo kenduz"

Junkal Arruti berargarra Bakerako Lankidetza Batzarra ize-neko GKEan ari da lanean. Ber-

tan, iparraldeko herrien sensibilizazio eta garapen hezkuntza projektuen ardura du. Hain-

bat eskolarekin egiten du lan, gaztetxoenekin, sentsibilizazioa eta lankidetza garatuz. Iza-

re, hezkuntzak berebiziko garrantzia duela aitortu digu; txikitatik landu behar da.

## ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Junkal Arrutik Bilbon egiten du lan; ahal duen guztietan, baina, herria itzultzen da, Bergarara, lagunekin eta familiarekin egotera. Aste bukaeran, Erramu-zapatuko feria dela-eta, gurasoek duten tabernan lan egitea egokitu zaio Arrutiri.

Bakerako Lankidetza Batzarra GKEan egiten duzu lan. Zer egi-tent duzue?

Bakerako Lankidetza Batzarra erakundeak hainbat lankidetza proiektu ditu. Nagusiki, bi esparrutan egiten dugu lan: alde batetik, hegoaldeko herriekin aritzen gara, eta, bestetik, iparraldeko herriekin sentsibilizazio lana egiten dugu. Hain zuzen ere, proiektu horiek nire ardurapean daude: sentsibilizazio eta gara-penerako hezkuntza proiektuak lantzen ditut, gehienbat. Baita ere immigrazioa, baina, orain arte, ez dut immigrazioa lantzeko tar-terik izan.

Eskoriatzan Humanitate eta Enpresa Zientzia ikasketak egin dituzu. Badu loturarako ikasitakoak lankidetza proiek-tuekin?


Bai. Eskoriatzan, Humanitate Zientzien Fakultatean, kooperatibismoa jorratzen dugu, lankidetza, eta, alde horretatik, nik uste dut lotura baduela.

Praktika batzuk kooperatiba baten egin nituen; bertan, lankidetza harremana nik uste nuena ez zela konturatu nintzen; beraz, beste alde batetik jotzea erabak nuen. Hala, nik nahi nuen lankidetza non dagoen bilatzeko auke-ra izan dut.

Nola sortu zitzazun GKE baten lan egiteko aukera?

Norberak interesatzen zaien lana bilatzen du. Hala, ikasketak egin bitartean, truke programan parte hartzen hasi nintzen; bertan, nire bidea hori zela ikusi nuen. Horren odoren, ikasketa amaierako praktikak kanpoan egin nituen, Txilen, eta Mexikon ere izan nintzen. Mexikotik bueltan, hori zela nire bidea ikusi nuen eta gehiago ikasten hasi nintzen. Master bat egin nuen Bilbon: *Garapena eta nazioarteko lankidetza*. Master hartako praktikak egitera Guatemalara joan nintzen. Han, erakunde horretako mutil bat ezagutu nuen eta haren bidez Bilbon lan egiteko aukera sortu zitzaidan.

Hiru bidaietako esperientzia izugarria izango da.



ARANTZAZU EZKIBEL

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Humanitate eta Enpresa Zientziak. **Zaletasunak?** Irakurtzea, bidaiatzea eta lagunekin egotea. **Gomendatzeko moduko filma bat?** *La vida es bella*. **Musikari bat?** Alejandro Filio eta Ruper Ordorika. **Zure bizitzako**

**Ieloa?** Irribarreaz bizi izatea; egin irribarre, eta iku-siko duzu nola beste modu baten hartuko zaituzten. **Debagoineko toki gustukoena?** Edozein toki da ona lagunekin egoteko. **Amets bat?** Denok izatea bizi-tzaz gozatzeko aukera, ez batzuek bakarrik.

Hiru bidaia politak izan dira, baina sorpresa handiena Guatema-larekin hartu dut. Han indigena asko bizi da; arropak, hizkuntza... Guztia mantentzen dute. Bertako jendearekin hartu-ema-na izateko aukera izan dut eta oso aberasgarria izan da. Mexikon kaleko umeekin ibili nintzen; esperientzia gogorra izan zen. Lehenengo bidaia, Txilera, bes-te lagun batekin egin nuen eta indigenekin, maputzeekin, egon gin. Beste bi bidaiaik bakarrik egin ditut.

Astea Bilbon ematen duzu, baina aste bukaerak Bergaran lagunekin egoteko aprobetxa-tuko dituzu...

Bai, saiatzen naiz etxera eto-rrri eta lagunekin egoten, baina, denborarekin, Bilbon ere gero eta lagun gehiago egin ditut.

Aste bukaeran, gainera, Erramu-zapatuko feria izan da Bergaran. Gogoko dudan jaia da, baina, gurasoek taberna dute-nez, lan egitea egokitu zait. Bergarako jaietan, lan egin ostean parrandara ateratzen naiz, baina oso nekatuta amaitzen dut; gero eta gehiago. Adin kontua izango da!

Gogorra da besteak parran-dan ari direnean zu lanean ari-tea?

Bai, gogorra da, baina polita ere bai, beste aldea ikusten duzu-eta. Niri, egia esan, gurasoen lana gustatzen zait, baina era berean oso gogorra dela ere kon-turatzan naiz; eta are gehiago gero parranda egin gura baduzu.

Bidaiatzea gustuko duzu, eta, Aste Santuko oporrik gaine-an direnez, nora joango zera?

Hasiera baten, ez neukan kan-pora ateratzeko asmorik, baina, azkenean, lagun taldeko bat Sevi-lilara joango gara. Lotsa ematen dit esateak; azkenaldian, kanpo-ra asko joan naizen arren, Eus-kal Herria eta Estatua ez ditut ondo ezagutzen; beraz, gehiago ezagutu beharko ditut.

Gipuzkoarra izanda, zer moduz hartu zaituzte Bilbon?

Lotsa eta amorrua ematen dit onartzea, baina lehia zatarra dago bi probintzien artean.

Nik zera uste dut: ez gara ez leku batekoak ez bestekoak, per-sonak gara. Lekuek mugatu egiten gaituzte; batzuei eskubideak emanez eta beste batzuei ken-duz. Pena ematen dit ezberdin-te horiek daudela ikusteak.



## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Buztintzuri kalean. 74 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsuza. Altzariekin. Telefonoa: 616 09 45.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 607 79 00 37.

**Antzuola.** Zurragetzi plazan duplexa salgal. 666 81 56 42.

**Antzuolan** 72 metro koadro. Hiru logela. Berogailua. Jantzia. 685 70 41 10.

**Aretxabaleta.** 97 m<sup>2</sup>, hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, bero-gailua. Erdialdean. Telefonoa: 660 79 27 67.

**Aretxabaleta.** Etxea salgai. 72 m<sup>2</sup>, berriozko. Garajea aukeran. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Bi logela. Berogailua. Guztiz jantzita. Erdialdean. 666 40 51.

**Arrasate.** Etxea salgai. 93 m<sup>2</sup>. Hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela eta ganbara. Garajea aukeran. 670 42 21 08.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. 60 metro koadro. Hiru logela, komuna eta sukaldea eta jantzia. TERRA eta berogailua ere baditu. Oso eguzkitsuza. Biziherria joateko moduan. 227.180 euro. 628 88 81 08.

**Arrasate.** Grupo San Juan. 60 metro koadro. 4. solairua. Igo-gailua, ganbara eta sotoa. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 76 m<sup>2</sup>. Berria. Dena kanpoaldea. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea berritu eta jantzia. Terraza eta berogailua ere baditu. Oso eguzkitsuza. Biziherria joateko moduan. 227.180 euro. 628 88 81 08.

**Arrasate.** Grupo San Juan. 60 metro koadro. 4. solairua. Igo-gailua, ganbara eta sotoa. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 76 m<sup>2</sup>. Berria. Dena kanpoaldea. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

**Arrasate.** Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>, berriozor. 4. logela. 695 77 62 19.

## hildakoak

- **Rafael Alonso Bocanegra.** Aramaion, martxoaren 30ean. 65 urte.
- **Inozentzia Kabijertua Isaseta.** Arrasaten, martxoaren 30ean. 87 urte.
- **Maria Monserrat Otazu Peña.** Bergaran, martxoaren 30ean. 85 urte.
- **Maritxu Belategi Lopez de Egino.** Oñati, martxoaren 31n. 76 urte.
- **Hilario Elortza Elkoro.** Bergaran, apirilaren 1ean. 87 urte.
- **Ignacio Elizegi Gallastegi.** Arrasaten, apirilaren 2an. 73 urte.



**Victoria Chups eta Aaron Tasker-Lynch** martxoaren 24an ezkondu ziren. Ospakizuna Bergarako Mariaren Lagundia elizan izan zen eta eztei-bidaian Kubara joanda bikotea. Zorionaketa musu asko, Nata-liaren eta zuen familiaren partetik.



**Ruben Rueda eta Amaia Calleja** zapatuan ezkondu ziren, Arrasateko udaletxeen. Bazkaria Itziarren egin zuten, Salegi jatetxeen. Ameriketako Estatu Batuetan daude orain, eta gero Bora Bora uartera joango dira. Zorionak eta ondo ibili, lagunen partetik.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguzten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 71 25 11.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

### Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia:  
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,  
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

### Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



Babeslea:



# OROILORE

Hileta eta beillatoki zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Zerbitzu etengabea 365 egunean

*Behar bagaitzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera...*

*Erantzun azkarra, tratu pertsonala*

*Eskelak: egunkari, irratia eta paperetan*

*Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak*

*Bete beharreko tramiteak*

*Gorpua prestatu eta dotore ipini*

*Zerraldo aukera, denetariko prezioak*

*Oroilore beillatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*

**berriak**

&gt; GOITB

**Martitzenean, hilak 10, bueltatuko dira informatiboak**

Aste Santuko oporretan, Goiena Telebistako informatibotako lantaldea oporrean izango da; beraz, ez duzue informatiborik izango Goiena Telebistan. Martitzenean, hilak 10, bueltatuko dira informazio saioak. Batetik, *Gaurkoak* saioa ikusi ahal izango duzue, 14:45ean hasita, ordubetean behin. Eta informatibo nagusia 19:45ean ikusi ahal izango duzue, Goiatz Aranak aurkeztuta.

&gt; PROGRAMAZIOA

**Euskarazko toki telebisten iragarkia ikusgai**

Aste Santuak igaro eta gero ikusi ahal izango duzue Tokiko toki telebisten elkarteko iragarkia. Arteman komunikazio empirak landu du Tokikoren irudi berria. Irudi hori erakusteko iragarkia ere ekoiztu dute. Bertan, Tokiko osatzen duten zazpi toki telebista irudikatu nahi izan dira. Goiena Telebistaren kasuan, Arantzazun jaso dute irudia eta bertako protagonista lan-gile gazte bat da.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Urtarrila ezkerro egindako elkarrizketen bilduma**

Apirlaren 5etik 15era elkarritzeta bildumak eskainiko ditu Arrasate Irratiak. Egunero, 10:00etan hasita, urtarriletatik martxora bitartean jasotako iritzien gainbegiratua izango da. Bost bildumatan eskainiko dira elkarritzeta, tartean lorategiaren geltokiak edo Txomin Iturberen heriotzaren 20. urteurrena zela eta Xabier Zubizarretari eta Alvaro Arregirri egindakoa.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Apirlaren 16an itzuliko da irratiko programazioa**

Apirlaren 16an Itzuliko da FM 107.7 autobusa uhinetara. Ohiko saioak entzuteko aukera izango duzue Aste Santuko oporen ostean. Tardean, ez ahaztu lagunak zoriontzeko aukera eskaintzen dizuelu Arrasate Irratiak. Horretarako 943 77 17 31 telefono zenbakiradeitu edo *irratia@goiena.com* posta elektronikora idaztea baino ez duzue. Era berean, merkatu txikirako iragarkiak bida-i ditzakezue.

'MUSIKANTOI' &gt; EGUNA, 21:45

## Su Ta Gar taldeak Aranzadin eskainitako kontzertua

Aranzadi Ikastolak, aste kulturallean, Su Ta Gar taldea gonbidatu zuen. Ordubeteko kontzertua egin zuten.

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Eguenean, hilak 5, *Musikantoi* saio berezia eskainiko dizuegu. Su Ta Gar talde mitikoa Bergaran izan genuen eta oso kontzertu berezia eskaini zien Aranzadiko ikasleei. Benito Lertxundiren *Oi Ama Euskal Herri* abestiarekin hasi zuen taldeak kontzertua, eta haien *Denbora* eta Hertzainak taldearen 564 kantiak ere jo zituzten. Hasiera-ko diskoko jasotako kantuak eta azken diskokoak ere entzun geni-tuen bertan. Kontzertu horren unerik berezienak jasoko ditu *Musikantoi* saioak, egunean, hilaren 5ean, 21:45ean.



SU TA GAR Eibartarrek kontzertua eman zuten Bergaran. GOIENKARIA

GOITB &gt; ASTE SANTUA

## Aste Santuko oporretan ere izango duzu zer ikusia Goiena Telebistan

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Goiena Telebistak ez du etenik izango opor egunetan. Egunero, 14an eta 15ean, Amaia antzokian izandako eskola-antzerkiaren jardunaldiko antzezlanak.

Asko eta asko oporretan izango zarete; beraz, ez duzue aitzan-

kiarik jaki goxoak prestatzeko. GOITBk egunero egingo dizu proposamena *Eltze Beroa* saioan. Eguenean, adibidez, Iñigo Ordorika sukaldaria langostinoak prestatuko ditu eta egubakoitzean, arroz krematsua.

Bertsozaleentzako ere, eskaintza bikoitza: Oñatin aste bukaeran IV. Bertso Txapelketa jokatu zen. Finalean jardun zuten sei bertsolarien lana zapatuan ikusi ahal izango duzue. Horrez gain, azken asteetan eskaintzen ari diren Osinalde sarietaren kanporaketak ere ikusi ahal izango dituzue.

**telebegi**Edorta Arana > [www.goiena.net/blogak/hamaika](http://www.goiena.net/blogak/hamaika)**Ordu txikitana**

**W**azemank-ek zapatuan betetzen zuen ordutegian, jarri dute, ETB1n, *Ordu txikitana* izenekoa. Dozena erdi umek famatu bati eginko elkarritzak (Benito Lertxundi, lehen saioan) hartzdu du saioaren tarterik zabalena. Gero dator gaurkotasuneko gaien inguruan neska-mutikoek botatzen dituztenez osatutako atala. Mikel Elizegi aurkezle lanetan jarri dute. Espero nuena baino hobeto moldatzan da gainera. Ez nuen askorik espero, egia esanda. Onik ez behintzat.

Inteligentzia handiz egin beharreko saioak izaten direlako umeak erabiltzen dituztenak, lotsaizunik gordinenean ez jausteko. Beste elementu batzuez gain, lehen mailako aurkezleak izaten dituzte (beste kateetako Xavier Sardá eta Bertin Osborne datozkit burura). Elizegik ez zuen porrotik egin, behintzat. Amaieran egon zen zatirik barregarriena. Familia bi lehian jarri zituzten beraien umea ezagutzen ote zuten jakiteko. Umea, lehengero, galduet, erantzunak asmatu guran jarriz gero gurasoak. Orduan bizi izan genituen momenturik onenak, gurasoek sarri kale egiten zutela ikusteko.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Apirlaren 5etik 15era**

10:00 Elkarrizketa bilduma.

Lorategiaren geltokiak; Elkarteen geltokiak, besteak beste, Iturrigorri, Sustar eta Nubi elkarteen gainean; BAZ geltokiak, besteak beste, Lanbide zerbitzuaren gaineko informazioa; Josu Zabala MUKO errektorea; Txomin Iturbe berbagai; Erakunde geltokian, besteak beste, Bizigune programari buruz ...

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

**Apirlaren 16tik aurrera**

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarrizketa  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Kultura ekitaldietarako sarrerak  
eskurak aukera  
Merkatu Txikiaren geltokia  
Zorion agurrrak  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarraren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurrren tartea (errep.)

**GOITBko programazioa****Egubakoitzta, 6**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jaiak 06. 14:15 Klip@ 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@ 16:45 Albisteak. 17:00 Jaiak 2006. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Jazz. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Behazulo. 21:15 Gatzeta eta berakatza. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Sustraia. 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 7**

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorra eta Snorkeldarrak. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean 12:00 Eltze beroa, sukal-daritza saloa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza 13:45 Harmailatik. 14:15 Klip@: musika taldeen bideo Klip@ 14:30 Astekoak. 14:45 San Migelak Aretxabaleta 15:15 Izan ziren. 16:00 Erreportaje. 16:30 Gatzeta eta berakatza. 16:45 MKT. 17:15 Elkar-tasunaren bideak. 17:45 Marrazki bizidunak: Snor-keldarrak eta Bihurkorra. 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean 20:45 Ilunpean 21:15 Teknopolis. 21:45 San Migelak oñati 06. 22:30 Astekoak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportaje. 23:45 Emisio amaiera.

**Domeka, 8**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Snorkeldarrak, Nonochan eta Bihurkorra. 11:00 Klip@. 11:15 Astekoak. 11:30 Iparorratza. 12:00 S, Migelak Oñati. 12:30 Izan ziren. 13:00 Gatzeta eta berakatza. 13:15 Elkartasunaren bideak. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak: Snor-keldarrak. 15:45 Ilunpean. 16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Astekoak. 17:30 Marrazki bizidunak. 18:45 Klip@. 19:15 Iparorratza. 19:45 Erreportaje. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 16 mm. 21:30 Behazulo. 22:00 Izan ziren. 22:15 San Migelak Aretxabaleta@. 23:00 Teknopolis. 23:30 Emisio amaiera.

**Astelehena, 9**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreportaje. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klip@ eta MKT. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gatzeta eta berakatza. 22:00 MKT. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportaje. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Eltze beroa. 00:30 Emisio amaiera.

**Martitzena, 10**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Klip@. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasunaren bideak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klip@. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz mintegia. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 16 mm. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:00 16 mm. 22:45 Berriak. 23:15 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Eltze beroa. 00:30 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 11**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16 mm. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jaiak 2006. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Klip@. 18:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gatzeta eta berakatza. 22:00 Zera dio. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Elkartasunaren bideak. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Emisio amaiera.

**Eguna, 12**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazkiak. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza. 13:15 Erreportaje. 13:45 Harmailatik. 14:15 Klip@. 14:30 Astekoak. 14:45 Maritzu 06. 15:15 Izan ziren. 16:00 Erreportaje. 16:30 Gatzeta eta berakatza. 16:45 MKT. 17:15 Elkartasunaren bidean. 17:45 Marrazkiak. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 JAIAK 2006. Maritzu Kajoi 06. 22:15 Izan ziren. 22:30 Astekoak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportaje. 23:45 Emisio amaiera.

# Apirlak 4-20

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



OÑATI

### > Manolo Kabezabolok emanaldia egingo du hilaren 14an Portu tabernan

Zaragozako kantari ezagunak emanaldia egingo du hilaren 14an, zapatua, Portu tabernan, 19:00etan hasita. Kabezabolo batean eta bestean dabil kontzertuak egiten. Oñatitik Villarockbledon parte hartzen abiatuko da.

## Erakusketa



ESKORIATZA

### > Aire zabaleko lehiaketan parte hartu zuten margolarien lanak ikusgai

Lehenengo antolatu du aurten Udalak aire zabaleko margo lehiaketa. Erantzuna ona izan zen; Debagoineneko zein kanpoko hainbat margolarik hartu zuten parte. Lanok ikusgai jarri dituzte Ibarraundi museoan apirilaren 15era arte.

## Erakusketa



ARRASATE

### > Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa Kulturaten

Ilustratzaile donostiarra publizitate agentzia baten hasi zen lanean, baina 1998an hura laga eta marrazteria dedikatza erabaki zuen. Ordutik hona hainbat sari jaso ditu. Hilaren 19an irekiko dute erakusketa Kulturateko klaustroan.

## Antzerkia

ANTZUOLA

### > Gaztetxoendako ipuin kontaketa saioa Apika taldearekin

Bukatu eta gero, Patxiku Txerren ipuin lehiaketaren 10. aldiian aukeratu dituzten lanak eta lanokin egindako liburua aurkeztuko dituzte.

Biak ala biak hilaren 11n izango dira. Ipuin kontakizuna 18:00etan eta liburuaren aurkezpena 19:00etan.

ARRASATE

### > Gaztetxoendako ipuin kontaketa saioa

Maite Frankok egingo du ipuin emanaldia. 4 eta 6 urte arteko gaztetxoendako da.

Hilaren 17an, 18:00etan, Santa Marina auzoko liburutegian.

OÑATI

### > Gaztetxoendako ipuin kontaketa saioa

Maite Frankok egingo du ipuin emanaldia. Apirilaren 18an, 5 eta 6 urtekoendako saioa egingo du eta apirilaren 19an, 7 eta 9 urtekoendako.

18:00etan, kultura etxearen.

## Musika

ESKORIATZA

### > Zuzeneko musika Inkernu tabernan

Josu Bergara musikariak emanaldi akustikoa egingo du Inkernu tabernan.

Hilaren 13an, 22:30ean.

BERGARA

### > Exum, No Humano, Konter eta Mazmonkil taldeen saioa

Jam aretoan egingo dute emanaldia. Sarrerak 5 euro balio du, aurrez zein leihatilan. Sarrerok dagoeneko eskura daitezke.

Hilaren 13an, 22:00etan.

BERGARA

### > Bassk Drum&Bass jaia Jam aretoan

Euskal Herriko zein Estatuko musikariekin hartuko dute parte.

Hilaren 14an, 00:00etan hasita.

ESKORIATZA

### > Etxe Musika taldeak zuzeneko emanaldia egingo du

Bide eginenez izeneko diskoa aurkeztuko dute.

Hilaren 20an, 22:30ean, Inkernu tabernan,

## Erakusketak

BERGARA

### > Daniel Txopitearen margo erakusketa

Daniel Txopitea (1950-1997) Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen

1970eko hamarkadan eta Oteitzaren inguruko mugimenduari lotutako ibilbidea izan zuen. Martitzenetik domekara dago ikusgai.

Aroztegi aretoan apirilaren 15era arte egongo da ikusgai.

## Hitzaldiak

BERGARA

### > Espainiako II. Errepublikaren gaineko hitzaldia

Imanol Zumalde historialariak egingo du hitzaldia. Bergarako Udal Artxiboak

PROPOSAMENA



Hondamendia badator

**LAS VACACIONES DE  
MR. BEAN**

MARTXOAREN 30EAN ZINEETAN  
[www.mr-bean.es](http://www.mr-bean.es)



BIDAL EZAZU "LAS VACACIONES DE MR BEAN" filmaren sarrera, zure datu pertsonalekin batera (izen eta abizenak, helbidea eta telefonoa) honako helbidera:

GRUPO ABACO (Dpto. Marketing) C/Juan de la cierva, 12, 46980 Parque Tecnológico Paterna (Valencia)

ETA 4 PERTSONENTZAT KOSTA URDINERA (Dena barne)  
BIDAIA BATEN ZOZKETAN SARTU AHAL IZANGO ZARA.

Jakinak nego eta balmentzen ditu. Iortuko diren datu pertsonalak, zorketaren inbentario jakitsko bakarrik erabiliko dira. Horren ordean, datu hauek desentetu egingo dira. Beste helburu batzuetarako ezin izango dira erabili, eta datuen fitxategi informatizatuera ere ezin izango dira erantsi. Iku ezazu, promocióaren oinarrizko <http://www.cinesabaco.com> web orrian.

antolatutako ekitaldia da.

Hilaren 18an, 18:30ean, Miguel Altuna institutuan.

OÑATI

### > Abiadura Handiko trena izango dute hizpide

AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kide batek egingo du hitzaldia. Horrek batera, AHT gelditzea badago delako bideoa emango dute.

Hilaren 20an, 18:00etan, Portu tabernan.

## Lehiaketak

GIPUZKOA

### > '%100 Gipuzkoa' delako lehiaketa deitu dute

Norberaren ingurunearen gaineko mobilmetraien (poltsikoko telefonoarekin grabatutako) lehenengo on-line lehiaketa deitu dute. 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

Argibide gehiago: [www.gipuzkoamo-bil.net](http://www.gipuzkoamo-bil.net) helbidean.

BERGARA

### > Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia

Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zenbakian.

OÑATI

### > Arrasate-Oñati lasterketako kamisetarako lehiaketa

Laixan euskara elkartek Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu lehiaketa deitu du: marrazkiak bi koloretan egon behar du gehienez eta XXV. Arrasate-Oñati lasterketa eta Jantzi kirola euskaraz leloak gehituko zaizkio marrazki aukeratuari. Epea hilaren 15ean bukatuko da.

Argibide gehiago Laixan elkartean, 943 71 63 11 zenbakian.

## Ospakizunak

OÑATI

### > Akelarrea egingo dute Gazte Asanbladako kideek

Equerdian, 13:00etan, plazatik abiatuta erromesaldi ateo egingo dute Sandaili kobaraino. 17:00etan, jokoak egingo dituzte eta 22:00etan, akelarrea. Oñatiko Gazte Asanbladak antolatu du. Apirilaren 5ean, eguna.

# Zorrotzailearen harmonika

**BETERANOA** Jose Luis Hernandezek 40 urte darama ofizio horretan; Granadakoa jaiotzez, mutikotan hasi zen zorrotzaile

**GAINBEHERAN** "Gero eta zorrotzaile gutxiago geratzen gara, baina oraindik badago lana", dio Hernandezek

**BIDAIALAGUNAK** Bizikleta eta harmonika ezinbesteko bidaialagun ditu zorrotzaileak

**EDU MENDIBIL > BERGARA**

Harmonikaren soinuak zorrotzailearen etorrera iragartzen du: ganibetak, labanak, guraizeak eta bestelako trasteak momen-tuan zorrozteko aukera eskaintzen dute. Jose Luis Hernandezek 40 urte darama ofizio horretan. Granadakoa, Motrilgoa jaiotzez, mutikotan hasi zen zorrotzaile lanetan eta orain, 54 urte dituela, hara eta hona jarraitzen du. Burgosen bizi da orain eta Espania osoan ibiltzen da BH markako bizikleta zahar batekin era guztietako gailuak zorrotzen. Bergaran izan gara harekin: "Debagoienera sarritan etortzen naiz; plaza ona da hau. Harakinak, arrain saltzaileek eta jate-txeek zorrozteko makinak dituzte gaur, eta gero eta zorrotzaile gutxiago geratzen gara, baina jarraitzen dugunontzat badago lana. Gutxienez, aurrera egiteko beste irabazten dugu...". Erreminta bakoitzak zorrozteak 2,50 euro eta 4 euro bitartean balio duela diosku: "Jatetxe eta dendez gain, andreak ere etortzen zaiz-

kit; harmonika entzun eta etxe-ko erremintak jaisten dituzte etxetik". Uda partean berriro gure ibarrean ibiliko dela esan digu Hernandezek. Bien bitartean, nomaden antzera jarraituko du, herririk herri: "Okerrena negua izaten da. Hotzarekin kalean ibiltzea ez da batere atsegina".

**HARMONIKA ETA BIZIKLETA**

Bizikleta eta harmonika ezinbes-teko bidaialagun ditu zorrotzaileak: "Harmonika ia-ia emaztea baino hobeto zaintzen zut. Urrea balitz bezala gordetzen dut. Jendeari deigarria gertatzen zaio harmonika entzutea, eta gurekin identifikatzen du bat-batean. Eta orain daukadan bizikletak 20 urte pasatxo izango ditu. Badut zaharrago bat ere. Lan egi-ten dudan bitartean, kirol pixka bat egiten dut...", dio umorez.

Zorrotzaileak eguraldi txarra dakartela diotenak ere badi-ra: "Uste okerra da hori. Bestela, euriaren falta duten tokitik dei-tuko zidaten... Eta aberatsagoa nintzateke agian...".



ZORROTZAILEA Jose Luis Hernandez bizikleta gainean, hainbat pieza zorrotzen, Bergarako Irala kalean.

E.M.

## ahobero

"Reala eta Athletic bigarren mailara jaitsiko balira, bikaina izango litzateke bigarren maila"

Pedro Mari Goikoetxea  
> Kazetaria

Ez dakigu, ba, Athletic eta Realeko zaleek berdin pentsatuko duten. Bi taldeak ere egoera larrian dabiltsa eta zaila dau-kate mailari eustea. Sufriztea tokatzen zaie azkenera arte. Edozein modutan, euskal der-bia, lehen mailan hobe.

## iturri onetik

**Ibarretxe lehendakaria eta sailburuak, Elgetan apirilaren 19an**

Ibarretxe lehendakaria eta Jaurlaritzako sailburu guztiak Elgetara etorriko dira datorren apirilaren 19an. *Intxortako ateak* eskulturaren inaugurazio ekitaldian hartuko du parte lehendakariak.

Era berean, Elgetako Udalak eta Intxorta Kultura Elkarteak apirilaren 14an Espaloia aretoan zabalduko duten Espainiako gerraren gaineko erakusketa eta etorriko dira Jaurlaritzako ordezkariak.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

### Aberri eguna

**B**at. Ez dut aspaldi ospatzen, ez bainaiz aberri zalea. Pozik hartuko nuke nafrar erresuma zaharraren independentzia, errepublika konfederatuaren forma hartuko balu: auto-antolakuntza maite dut, eta Espaniaren -España honen- menpeko izatea oso eginkizun nekosoa zait. Libre hobeto. Bainak, ez etorri niri 'Euskadi es la patria de los vascos' esaka, lilura piztu nahian. Ez naiz eliza horretakoak.

Bi. Aberri eguna erabili izan da -bakotzaren parrokia berotzeaz gain- iragarpenean handiak edo handiusteak egiteko abagune gisa. Aurten ere badabil zurrumurrua: ETAk egin omen lezake -egun inguru horretan- adierazpen esanguratsua eta, horrela, bere kide politikoei hauteskundeetarako bidea zabaldu. Poztuko naiz hala bada. Bainak, espero...

## ai, eñe!



**Txokolatezko Kristoak polemika piztu du**


Txokolatezko Kristo hori erakus-tekoak ziren egunotan Manhattango areto baten, baina era-kusketa bertan behera geratu da.

<http://tinyurl.com/2zztju>

### Babes eta erosotasun handiagoa



### Dekorazio aukera guztiak



### Eguzki babesia



**VELUX®**



**gelatzz.eus**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51